



LGBTB komunitatearen borroka kaleratzeko eguna, Durangaldea denontzako eremu bizigarria izan dadin aldarrikatzeko

Ekainaren 28a • Gaurkoa LGBTB Harrotasunaren Nazioarteko Eguna da. Sexerbestera joan barik, Durangaldeko identitate disidenteak kalera irtengo dira haien identitateak eskualdean bertan bizi gura dituztela aldarrikatzeko. Eskualdeko instituzio publikoek ere bat egin dute Ekainaren 28agaz. • **5**



"Mendeurren ospakizuna herri guztira zabaltzea izan dugu helburu"

Elorrio Futbol Taldearen 100. urteurreneko ospakizunak aurrera doaz apurka. Manuel Garcia presidentea eta Rakel Marquinez presidenteordea gustura daude orain arte egindako ekintzek izandako harreragaz. • **2-3**

Zaldibarko jaien gehigarria

Motorrak berotuta, zaldibartarrak gogotsu herriko jaietan murgiltzeko



Jaiak • Zaldibarko jaiak ekitaldiz baterik datoz. Uztailaren 4an hasiko dituzte, Donien Atxa jasota eta gaztetxeko kideek txapligua jaurtita. Jaien hasieran, Jose Luis Mendibilbar futbol entrenatzailea omenduko dute. • **14**



"Bada denboratxo bat aurtengoa azken urtea izango zela erabaki nuela"

Kirola • Futbol munduan jarraitzeko eskaintzak izan dituela argitu du Xabier Etxeitak, baina oraingoz atseden hartu gura du, "arnasa hartu". Uda ostean erabakiko du zer bide hartu. • **26**



“Mendeurreneko ospakizuna ondo irteten dabil eta estres guztiak merezi izan duela sentitzen dugu”

Manuel Garcia Gil (Berriz, 1970) eta Rakel Marquinez Garate (Abadiño, 1978) Elorrio futbol klubeko presidentea eta presidenteordea dira, hurrenez hurren. Ilusioagaz eta antolakuntzako estresagaz daramate taldearen mendeurreneko ospakizuna

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Biek iaz hartu zituzten euren karguak, eta lehenengo denboraldian erantzukizun handiko zeregina egokitu zaie: mendeurren batek merezi duen moduko ospakizuna antolatzea. Urte "gogorra" izaten ari dela onartu dute, baina pozik daude, orain arte antolatu dituzten ekimenak ondo irten direlako.

A zer denboraldia egokitu zaizuen Elorrioko presidente eta presidenteorde karguetan estreinatzeke. Emozioa ala estresa nagusitzen da?

Rakel Marquinez: Estresa! Zuzendaritzan sartu eta mendeurrenari aurre egin beharra oso gogorra izaten ari da. Izan ere, bertigo apur bat ematen du, ez delako edozein urtemuga. 100. urteurrena da eta data borobil horrek merezi duen moduko zeozer antolatu gura genuen.

Manu Garcia: Guztiz ados nago. Denboraldi gogorra izaten ari da denontzat, eta estresa nagusitzen dabil. Aldaketa asko egon da, eta, gainera, mendeurreneko ospakizuna... Ez da guk aukeratu dugun zeozer.

Zuzendaritzan inork ere egon gura ez duenez, zozketa egiten da kideak aukeratzeko, eta oraingoan guri egokitu zaigu. Urte biko legegintzaldiak dira. Mendeurreneko antolaketa lantalde bati eskerrak daramagu aurrera. Zuzendaritzan, zorionez, jende asko dago hainbat arlori buruz asko dakiena. Guztira, 14-15 gara. Denok oso inplikaturik gaude eta talde batua osatzen dugu. Eta eskerrak horri, bestela zoramez litzateke.

Zelan irten da oraingoz antolatu duzuen?

M.G.: Ospakizuna ondo irteten ari da, eta eskerrak! Estres guztiak merezi izan duela sentitzen dugu. Esperientzia positiboa izaten ari da. Orain aste batzuk, gizon beterranoen triangeluarra bikain joan zen. Gero, talde guztiak eta zuzendaritzakoek elkarregaz bazkaldu genuen soziedadean. Eta emakume beterranoen lagunartekoari eta jaiari buruz ere beste horrenbeste esan dezakegu. Kasu horretan, denak batu ziren bazkaritara, gizon eta emakumeak. Egun politak izan dira.

M.G.: Azken batean, eurak dira protagonistak. Jende askok urte askoan egindako ekarpenari eskerrak bete ditu Elorrioko taldeak 100 urte. Jende hori pozik eta eroso sentitu dadin gura izan dugu, egun atsegi-

nak izatea eurentzat. Horixe izan da helburua.

Baina ospakizuna ez da amaitu oraindino.

M.G.: Ez, hainbat ekintza falta da; jaietako pregoia, besteak beste. Jaietan Gernika futbol taldea ekarri gura genuen, Elorrioren lehenengo partidu ofiziala euren kontrakoa izan zelako. Baina ezin dute data horretan. Partidu hori antolatu gura dugu, baina oraingoz ez dakigu noiz izango den. Omenaldiekin ere jarraituko dugu.

Elorrioko Numismatika eta Filatelika Elkartek mendeurrenari eskaini dio bere urteroko erakusketa. Klubetik kanpoko elkarteak ere bat egiten ari dira ospakizunagaz.

R.M.: Bai, eta asko poztzen gaitu, ospakizuna herrira zabaltzea izan delako beti gure helburua. Erakusketaren harira, askotan egon naiz eurekin, eta sekulako lana egin dute. Estatu osoko jendeagaz egon dira hartu-emanen, zigiluak eta bestelako materiala lortzeko. Egia esanda, asko ikasi dut eurekin eta esperientzia polita izan da.

Kirol arloari dagokionez, zelan baloratuko zenukete emakumeen talde nagusiaren denboraldia?

M.G.: Emakumeen denboraldia ona izan da. Beste behin ere

goian ibili dira eta ez edozein ligatan, Euskal Ligan baino. Elorrio hain maila handiko liga batean ordezkaturik egotea sekulakoa da.

R.M.: Eta bigarren taldeak igoera fasea jokatu du. Azkenean ez dute igotzerik lortu, baina borrokan egon dira eta horixe da inportanteena.

Gizonek, oster, asko sufritu dute Lehenetsuneko Mailari eusteko. Izan duzue mendeurrenean jaitziko ziren kezkarik?

R.M.: Beldur horixe nuen nik.

M.G.: Kezka handia izan dugu. Sailkapenaren erdi inguruan ibiltzea espero genuen, baina hasieratik gauzak oker irten ziren. Gu ekainean sartu ginen zuzendaritzara eta asko zegoen egiteko. Irailean ez zegoen entrenatzailerik, jokalaria ere hamahiru ba-

Beteranoen triangeluarra izan zen egun berean lortu zuten gizonek mailari eustea. Egun hartan bertan jokatu zuten partidua. Imajinatu zelako eguna!

karrik... Apur bat kaotikoa izan zen sasoi hura.

R.M.: Beteranoen triangeluarra izan zen egun berean lortu zuten gizonek mailari eustea. Egun hartan bertan jokatu zuten partidua. Imajinatu zelako eguna! Zuzendaritzako kideok banatu egin ginen. Batzuk mendeurreneko ekimenetan egon ziren eta besteak partidura joan ziren. Zorionez, dena ondo irten zen eta jaiaz gozatu ahal izan genuen.

Zelan dago harrobia?

R.M.: Guztira, 21 talde eta 300 bat neska-mutiko ditugu. Askok dira eta pozik gaude. Ulertu behar da jokalaria bakoitzak bere beharrak eta ilusioak dituela, eta hori dena denen gustura kudeatzea lan nekeza eta konplikaturik da, jakina. Taldeak egiterakoan eta abar. Ahalik eta ondoen eta orekatuen egiten ahalegintzen gara.

Zelan dago kluba ekonomikoki?

M.G.: Justu samar. Elorrio lako taldeek gurasoek ordaintzen dituzten kuotei eskerrak irauten dute bizirik. Enpresen laguntza ez da berdina pandemiaren geroztik.

R.M.: Han eta hemen atea jotzen ibili behar izaten dugu, laguntza bila.

M.G.: Dena ezin delako izan kuotak igotzea. Durangaldean, kuotarik baxuenetarikoa duen kluba izan daiteke Elorrio, baxuena ez bada. Lehenago edo geroago, kuotak igo egin beharko direla uste dut.

Omenaldiak, jaiak eta ereserki berria izan dituzte orain arte; aurrera begira, jaietako txupinazoa eta liburua falta dira

Martxoan Arriola Antzokiko galan mendeurrena ospatzeko aurkezturiko egitaraua aurreikusi zen moduan doa; oraindino ekintza dezente geratzen da aurretik



Goian emakume beteranoak, joan zen asteburuko lagunartekoan. Behean gizon beteranoak, maiatz amaierako lagunartekoan.

FUTBOLA • J.D.

Ehun urte betetzea ez da edozelako lorpena. Mendeurrenak ospakizun bereziak dira. Klubeko arduradunek egoerak eskatzen duen mailan egon gura zuten eta anbizio horregaz aurkeztu zuten lantaldean prestaturiko egitaraua martxoan, Arriola Antzokian. Egitarau mar-dula zen, ekintza askokoa eta data konkretuekin. Erroka handia zuten aurretik, baina, oraingoz, aurreikusitako moduan doa ospakizuna, aurreratutako moduan.

Neurri batean, Arriolako galagaz ekin zioten egitarauari. Hainbat belaunalditako jokalariek eta jokalaria ohia igo ziren eszenatokira, klubaren historia erreparatzeko. Pedro Erizek, Igor Basterretxeak, Marijo Martinek eta Raket Zamalloak sasoi bateko kontuak gogoratu zituzten, eta Itsasne Larruskainek gaur egungoak.

Harrezkero, partidu ofizialen aurretik, kluba handi egiten lagundu duten pertsonak omendu dituzte:

Eriz, Zenitagoia, Duñabeitia... Gizon eta emakume beteranoen lagunartekoak izan dira ospakizuneko beste osagai bat. Emakumeena joan zen asteburuan egin zuten, eta ondoren herrigunera zabaldu zuten jaiak, herri bazkariagaz eta musikagaz. Egun horretan estreinatu zuten klubeko ereserki berria ere. Herriko hainbat musika talde elkarlanean aritu da musika eta letra berria sortzeko.

Futbol denboraldia amaitu da, baina ospakizuna ez. Partiduak hasi aurreko omenaldiek urtea amaitu arte iraungo dute. Eta Ferixa Nausikoak Elorrioko kideek irakurritako pregoiagaz hasiko dira. Jaietan torneoak ere antolatu gura dituzte.

Urtea amaitu orduko, klubaren azken 25 urteetako ibilbidea jasotzen duen liburua aurkeztuko dute, Igor Basterretxea eta Imanol Tabera historialariek egindakoa. 75. urteurrenean argitaraturiko liburuaren osagarria izango da.

100 urteko historia lau datatan

Argazkiak eta informazioa: 'C.D. ELORRIOren 75 urteko historia' liburutik.

1924, lehenengo talde federatua eta ehun urteko historiaren hasiera



1920. urtearen aurretik bazegoen partiduak jokatzen zituen lagun kuadrilla bat Elorrioren. Inguruko herrietako taldeen aurka jokatzen zuen. Kirol elkarteak 1923an sortu zen, Elorrio F.B.C. (Foot-Ball Club) izenagaz. 1924/1925 denboraldian, federatu eta Bizkaiko C seriean lehiatzen hasi zen. Lehenengo urtean hirugarren amaitu zuen, Gernika eta Durangoren atzetik. 1931-1932 denboraldian desagertu egin zen, jokalaria faltagaitik, antza, eta ez diru faltagaitik.

1947, taldea berreskuratu zuten urtea; harrezkero, ez du beste etenik izan



Hamabost denboraldiko etenaldiaren ondoren, Elorrio taldea berriro federatu zen —Elorrio F.C. izenagaz— eta harrezkero ez du etenik izan. Liga hasita zegoenez, ezin izan zuten parte hartu. Horren ordez, txapelketak jokatu zituzten; Hierro txapelketa, esaterako. Sasoi hartan, taldekideen batzarrak Bernardino tabernaren atzealdean egiten zituzten, gaur egun Parra izena duen tabernan. Esan daiteke taldearen egoitza zela, Pablo Igarza 'Teherán' jokalariairena, hain zuzen ere.

1954, Eleizalde futbol zelaiko tribuna inauguratu zuten, azpiegitura berriekin



Eleizalde futbol zelaia 1947an inauguratu zuten, talde berreskuratu berriagaz batera. Zelaiak metalezko etxola bat baino ez zuen, eta aldageletan dutxa bakarria zegoen. Ondorioz, jokalariek errekan bainatzen ziren. 1954ko irailaren 8a klubaren historiako beste data garrantzitsu bat da. Elorrioko jaien barruan, tribuna berria eta haren instalazioak inauguratu zituzten. Udal Bandak eta Los Luisen dantza taldeak girotu zuten ekitaldia, eta Athleticek eta Elorrioko eta Durangoko Kulturaleko selekzioak lagunartekoa jokatu zuten.

1991/1992, emakumeen taldearen hasierak; klubaren talde izarra, gaur



1969an emakumeen partiduren bat jokatu zen Elorrioren, baina ez zuen jarraipenik izan. Beraz, ofizialki 1991/1992 denboraldikoa da emakumeen lehenengo taldea. Orduan, Lourdesko Ama ikastetxeko kantxan entrenatzen ziren. Federatzea erabaki eta klubera joan ziren ideia horregaz. Hurrengo urtean jokatu zuten lehenengo ligan Elorriogaz, 1992/1993 denboraldian. Harrezkero, klubeko talde izarra bihurtu da. Euskal Ligan onenen artean dabil urtero, eta iaz Euskal Kopa irabazi zuen.

Yum Yum Durango gida gastronomikoa kaleratu dute

Udalak turismoari zuzenduriko 10.000 ale argitaratu ditu, lau hizkuntzatan eta hiru ataletan banatuta; jatetxe eta tabernen eskaintzari "balioa ematea" izan dute helburu

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durangoko Udalaren eta Turismo Bulegoaren babesa duen lehenengo gida gastronomikoa kaleratu dute Durangon, Yum Yum Durango izenekoa. Turismoari zuzenduta dago eta herriko jatetxe eta tabernen eskaintzari "balioa ematea" du helburu.

24 orrialdeko gida da eta hiru ataletan dago banatuta: menuak, mokaduak edo tapak, eta gosariak. Lehenengo edizio honetarako, 10.000 ale argitaratu dituzte, lau hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta

frantsesez). "Gida hau funtsezkoa da tabernak eta jatetxeak suspertzeko dugun estrategia-rako, sukaldaritzaren esperientzia paregabeetan interesa duten turistak erakartzen laguntzeko eta tokiko ekonomiari laguntzeko", esan zuen Jessica Ruiz alkateordeak. Eta Kobika jatetxeko Iñigo Kortabitarte sukaldari durangarrak hau gaineratu zuen: "Ekimen hauek oso onuragarriak dira Durangorako. Oso garrantzitsua da gure gastronomia nabarmentzea eta turistari herrian dugun eskaintzaren artean aukeratzeko laguntzea".



Iñigo Kortabitarte (bigarrena ezkerretik) sukaldaria udal ordezkariekin.

Nekazaritzarako erreminta eta makinak alokatzeko zerbitzua, martxan

Urkiola LGAk ipini du martxan egitasmoa, Durangaldeko nekazaritza ekoizpena sustatzeko helburuagaz; 11 nekazari batu dira jada, eta interesa duenak idatziz egin dezake eskaria

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Urkiola Landa Garapenerako Alkartean (Urkiola LGA) nekazaritzarako makinak eta erremintak alokatzeko zerbitzu "berritzailea" ipini du martxan, "Durangaldeko nekazaritza ekoizpena hobetzeko" helburuagaz. Hartara, nekazariak "ustiapenen produktibitatea, jasan-

garritasuna eta errentagarritasuna handitzeko" aukera eman dezakeen ekipamendua erabiltzeko modua izango dute. Dagoeneko 11 nekazari batu dira proiektura, eta interesa duenak idatziz egin dezake eskaria elkartean.

Urkiola LGAk egingo du zerbitzuaren kudeaketa zuzena, baina

lan batzorde bat eratuko dutela iragarri dute arduradunek, "hobetzen joateko". Durangaldeko nekazaritza modernizatzeko "urrats garrantzitsua" dela nabarmendu dute: "Tokiko nekazariari laguntzeaz gainera, luzera begira sektorea jasangarria eta errentagarria izan dadin laguntzen du".



Durangaldeko nekazariak Urkiola LGako ordezkariekin.

Durangoko garbitasun zerbitzuko langileek protestak hasi dituzte

"Partzialtasuna murriztu eta zerbitzua hobetzea" gura dute

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durangoko Udaleko garbitasun zerbitzuko langileek protesta ekintzak hasi dituzte, "partzialtasuna murriztu eta zerbitzua hobetzeko". Besteak beste, kontratazio ordena arautuko duen lanpostu hutsen sistema ipintzea aldarrikatzen dute. Herriaren Eskubideak neurriak hartzea eskatu dio gobernu taldeari.

Lantaldea 40 langilek osatzen dute, eta ia guztiak emakumeak

dira. Berrogeietatik bederatzik lanaldi osoa dute; horietako bi, gizonak. Aipatu dute astean ordu bi eta erdiko lanaldia duten langileak daudela. Horregaitik, sortzen diren lanaldi hutsen ordena arautzen duen sistema ezartzea gura dute. Udalgaz eta zerbitzua kudeatzen duen ISS Facility Services enpresagaz batzartu dira, eta "biek uko egin diote enplegu duina eta ez-prekarioa bermatuko dien sistema arautzeari".

Udalak Durangotik Donostiarako garraio zerbitzua hobetu gura du

Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundien garraio sailei azterlan bat egiten laguntzeko eskatu die udalak; Durangoko eta inguruko herrietako ikasle talde baten eskariagaz bat egin dute

DURANGO • A.B.

Maiztasun egokia izango duen Durango-Donostia autobus linea izateko, udalak laguntza eskatu die Bizkaiko eta Gipuzkoako garraio sailei elkarrengaz azterlan bat egiteko. Dela lanagaitik, ikasketengaitik zein aisialdiagaitik, Durangotik Donostiarako joan-etorriak erraztu gura dituzte. Halaxe jasotzen du udalbatzak aho

batez onartu duen mozioak. Bide horretan, aldundi biek eta Jaurlaritzak erakundeen koordinazioa sustatzea eskatuko dute, "egungo eskaria ebaluatzeko eta zerbitzuen eskaintza herritarren benetako beharretara egokitzeko". Bestalde, Donostiarako tren zerbitzuaren iraupen denborak murrizteko aukerak aztertzea eskatuko dio udalak Euskotreni. Durangoko eta

inguruko beste herri batzuetako ikasle talde batek eskaria egin du garraioa hobetzeko Donostiagaz, eta batez ere EHUko campusagaz, eta udalak eskariagaz bat egin du mozioan. Udak talde guztiek bat egin dute garraio publiko jasangarri baten beharra aipatzerakoan, eta Donostiara doazenean aurre egin beharreko traba eta gastuak azpimarratu dituzte.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2024ko ekainaren 28a
22. urtea - 985. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01

ISSN:
1578-7028

Tirada:
12.000 ale



PEFC elurtagia
Produktu hau
sustentagarria
dira eta Biko
Kudeaketa
Zuzentzaia
duela

PEFC 14-38-0025
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Iazko Ekainaren 28an Durangaldeko LGBT komunitateko hainbat kide mobilizatu zen Abadiñon.

LGTB komunitatea kalera irtengo da gaur, Durangaldea identitate disidenteentzako eremu bizigarria izan dadin aldarrikatzera

Durangoko Kuir Eztanda kolektiboa eta Abadiñoko LGBT mugimendua Traña-Matienako kaleetan manifestatuko dira gaur, 19:00etan. Gauean, Akelarrea egingo dute Isiotun

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Harrotasunaren Nazioarteko Egungaz bat eginda, Durangaldeko LGBT komunitatea kalera irtengo da gaur "egunerokotasun bizigarri bat berma dezaketen sareen bila". Diotenez, "gauzak ez dira hainbeste aldatu" azken hamarkadetan, eta komunitateko hainbat kidek "oraindino ere kostata" izan dezakete "bizitza duin bat" eskualdeko herrietan. Eurretariako asko oraindino "armairu barruan" bizi dira, "bizirik irauteko edo". Horrez gainera, hainbat dira "hiritara alde egiteko beharrezana" sentitzen dutenak. Hau da, komunitateko hainbat kide *sexilio* edo

sexerbeste modura ezagutzen den hori egitera behartuta sentitzen dira oraindino ere: identitatea askatasun handiagoz bizi ahal izateko landa eremutik hiriguneetara alde egin behar izate horretara. Horiek guztiak kaleratzeko helburuz, Durangoko Kuir Eztanda kolektiboa eta Abadiñoko LGBT mugimendua Traña-Matienako kaleetan manifestatuko dira. Mobilizazioa 19:00etan hasiko dute, Laboral Kutxa paretik. Manifestazio amaieran, musika jartzaileak egongo dira eta afari-merienda egingo dute Pino plazan. Gauean, 22:00etan, jaia egiteko ordua izango dute. Akelarre transmari-bolloa egingo dute Isiotu Kultur Elkartearen tabernan. Drama Daruma taldeko musika jartzaileak, karaokea eta photocalla izango dituzte.

Aldarrikapenerako eguna gaurkoa den arren, azken egunotan hainbat ekitaldi egin da Ekainaren 28aren testuinguruan. Durangoko Bilgune Feministak, adibidez, *Irakurraldi Feminista* egin zuen atzo Intxaurre tabernaren parean. Egu-

na dantzan amaitu zuten, Kuku eta Kene musika jartzaileen saioagaz. Horrez gainera, Durangoko Udalak antolatuta, Plateruena Kultur Aterpean Zinegoak LGBT film laburren emanaldia egon zen. Iurretan egitasmo parte hartzaile bat egin zuten. Ibarretxe Kultur Etxearen atzealdetik ikastetxeetara doazen eskailerak ostadarraren koloreekin margotu zituzten.

Instituzioen babesa

Durangaldeko udalek bat egingo dute Ekainaren 28agaz. Eskualdeko herri askotan adierazpen instituzionalak irakurriko dituzte, eta hainbat izango dira Durangaldeko herrietan programaturiko ekitaldi kulturalak. Tabirako igerilekuan, adibidez, gazteei zuzenduriko LGBTBIQ+ jokoak egingo dituzte, 12:00 -14:00 eta 17:00-19:00 orduetegian. Elorrioko Udalak ostadar bandera igoko du udaletxeke mastan. 19:00etan izango da. Ondoren, Batukimba Drag ikuskizuna egongo da. Iurretako Udalak ere ostadar bandera ipiniko du udaletxean.



Iaz ostadarren koloreko eztanda batez amaitu zuten Abadiñoko mobilizazioa.

Segi dezagun askotariko sexualitateen eta identitateen askapenean bidelagun izaten! Bideak zabalduz, gure herrietan harro eta gure herrietako aniztasunaz harro!



"Itziar tabernak 20 urte egitean bildotsak erre genituen, eta orduan bururatu zitzaigun 25. urteurrenean txahal bat erretzeko ideia"

Atxondoko taberna hartu zutela 25 urte bete direla ospatzeko, Karlos Ibarrodok erretako txahala dastatzeko aukera eskaini zuten atzo

ATXONDO • J.D.

Apatako jaiak atzo hasi ziren, txo-poak jasota. Ospakizun orokorren barruan, beste ospakizun berezi bat ere izan zen. Izan ere, Itziar tabernak 25 urte egin berri ditu eta herritarrekin partekatu gura izan zuten urtemuga. Karlos Ibarrodok erretako txahala pintxotan eskaini zuten arratsaldean zehar. Tabernan tragoa hartuta, txahal errazioa dohainik jateko tiketa jaso zuten bezeroek.

Ibarrodok taberna ondoko aparkalekuan erre zuen txahala, 06:00 inguruan hasita. Horrela, ingurutik pasatzen ziren denek ikusi ahal izan zuten prozesua. "Txahal bat zelan erretzen den ikustea ikuskizuna da", dio Niko Erdoiza tabernako arduradunak.



Isabel Crende eta Niko Erdoiza, Itziar tabernaren atarian.

25 urte egitean txahala erretzea", gogoratu du Erdoizak.

Negozioak zabaldu eta itxi egiten diren sasoian, azpimarratzeko lorpena da mende laurdenera heldu izana. Niko Erdoiza eta Isabel Crende senar-emazteena da meritua. Aurretik zegoen jatetxea eraberritu eta gero hartu zuten ardura, eta

osasun onagaz heldu dira gaur egunera, bidean aurkituriko oztopoei aurre eginda. Abadiño-Elorrio saihebidetako bezeroak kenduko zizkien ardurak "lo orduak kendu" zizkiola onartu du Erdoizak, baina bezeroak leial mantendu ziren. "Gurean pintxo bat jatearren, badira oraindino bide zaharra

hartzen dutenak. Kafea ere oso ona ateratzen dugula diote", esan du Erdoizak. Kontuak kontu, negozioak beherantz egitea logikoa zenean, kontrakoa gertatu zen. "Gehiagora joan gara", nabarmendu du tabernariak. Eta etxekoe-kin bakarrik hasi zen negozioak behargin bat baino gehiago du

gaur egun eskariari aurre egin ahal izateko.

Zein da arrakastaren sekretua? Bata begi-bistakoa da: pintxoz beteriko hiru apal, goizero. Barikuetan, kazolak eta errazioak ere bai. "Lanerako seriotasuna" da beste gakoetariko bat. Senar-emazteen laneguna 04:00etan hasten da. Bezeroekiko eta beharginekiko "tratu ona" ere garrantzitsua da, Erdoizaren ustez.

Taberna Julen Guerreroren kirol lagunartea da betidanik, eta futbolari ohiak hainbat bider bisitatu du taberna.

Jaietako asteburua

Atxondarrek ekimenez beteriko asteburua dute aurretik. Gaur arratsaldean tortilla eta bakailao txapelketak daude, eta gauean Itzal taldearen erromeria. Zapatuan, 23:00etan, Azken Sustriak eta Garratz taldeek kontzertua emango dute. Jaietako azken egunean, domekan, nekazari eta artisau azoka egongo da, 11:00etatik 14:30era, Eixuk antolatuta.

Turismo jasangarrirako bidean herriak dituen premiak aztertu dituzte Otxandion

Udal ordezkariak Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasun eta Turismo Saileko arduradunekin batu dira

OTXANDIO • AITZIBER BASAURI

Otxandioko Udalak turismo jasangarria sustatu gura du herrian, eta bide horretan zeintzuk neurri hartu aztertzeko, Bizkaiko Aldundiko Garraioak, Mugikortasun eta Turismo Saileko arduradunekin elkartu da. Udalak Otxandiok dituen premiak aztertzeko diagnostiko fase batean

dago oraindino, Mikel Abasolo zinegotziaren berbetan. "Indarra zertan ipini behar dugun eta inguruan ditugun azpiegiturak horretara zelan egokitu aztertzeko batzarra izan zen", adierazi zuen. Bestalde, asteburuan zabaldu dute Turismo Bulegoa. Barikutik domekara egongo da zabalik.



Udal eta foru ordezkariak, Otxandion.

Xiberoots eta Dupla taldeek kontzertua emango dute Mañarian abuztuko jaietan

Joan zen asteburuan, sanjoanetako ospakizunen barruan, abuztuko Andra Mari jaiak aurkeztu zituzten Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Abuztuko Andra Mari jaietako egitaraua publiko da dagoeneko. Txupinazoa abuztuaren 14an da eta herriko gazteek botako dute. Ondoren, Xiberoots eta Dupla taldeek eta DJ Kukuk kontzertua emango dute. Abuztuaren 15ean binakako pilota partidua jokatu-

ko du Aingeru Bernaola mañariarrak. Victor Estebanek eta biek Arteaga II - Merino II bikotea izango dute aurkari. Egun berean herri kirol erakustaldia dago Haritz Aranguren, Urdax Magunazelaia, Ioritz Gisasola eta Karmele Gisasolagaz. Abuztuaren 16an Lehian erromeria taldeak joko du.



Abuztuaren 14tik 16ra ospatuko dituzte Mañariko Andra Mari jaiak.

Euriak ez zuen eragotzi Izurtzako asteburu kulturalagaz gozatzeko aukera

IZURTZA • J.D.

Izurtzako aste kulturalaren balorazio positiboa egin dute udalitik, eta aurrera begira "errepikatze asmoa" dutela esan du Oihane Irastorza alkateak. Eskerrak eman dizkie ekimena aurrera ateratzeko lan egin duten denek. Zapatuko Ganso&Cia konpainiaren antzezlanaren jendetsuena. Ez zuen euririk egin eta jende asko batu zen plazan. Hurrengo egunean, eguraldiak ez zuen lagundu, eta Balkoitik Plazara bertso saioa frontoian egin zuten, eta Santo Tomas parkeko jai herri-gunera pasatu zuten, plazan su txiki bat eginda.



Osasun gida

 **Podologia**
PSE: 214/06


OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

 **Optometria**
PSE: 162/13

NAIA
ZABALA
AUZMENDI
11587 kol. zk.


keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Proktologia**
PSE: 16/22

prōktós.clinic

Uzki eta zoru-pelbikoko patologien tratamendua

Mikeldi Kalea, 13, 48200 Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktos.clinic

 **Psikologia**


Zure bidelagun

Haur, nerabe eta helduentzat

Bikote-arazoak, antsietatea eta estresa, depresioa, eskola eta ikasketa zailtasunak, arreta goiztiarra, familia-arazoak, portaera-arazoak, estimulazio kognitiboa; oroimena, hizkuntza, arazoak logikoa, elikadura-portaera, diskalkulia eta dislexia.

 **623 173 181 - 613 038 933**
Andra mari 16 ID Durango

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13


ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Saio pertsonalizatuak dira, talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16


pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13


clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA • KIRURGIA • ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI • HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 26/22


HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durangon

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordutegia:
Astelehenerik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com



 **Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



EH Bilduk "kezka eta ardura" erakutsi ditu Osakidetzaren eta osasun zerbitzuen "gainbeheragaitik"

EH Bilduko alkate eta zinegotziek Osakidetzaren "gainbeherak" Durangaldean duen eragina salatu dute agerraldian



Durangaldeko EH Bilduko alkate eta zinegotziak, eguazteneko agerraldian.

BERRIZ • ARITZ MALDONADO

EH Bilduko alkate eta zinegotziek agerraldia egin dute, aste honetan, Osakidetzaren "gainbeherak" Durangaldean duen eragina salatzen eta hiru neurri betetzea eskatzeko. "Herrietako

Osasun Zentroetako zerbitzu guztiak mantentzea, lehen mailako arretan murrizketak amaitzea eta profesional gabeziari amaiera emango dion planifikazioa egitea eskatzen diogu Osakidetzari", azaldu du Naiara Bidosola Aba-

diñoako alkateordeak. Koalizio subiranistako kideen berbetan, Durangaldeko egoera "atsekabez eta arduraz" ikusten dute. "Berriren mediku bakarra dago, berez hiru egon behar diren arren, eta honek eragin zuzena du garai-

tarrengan ere; Abadiñon protestan dabilta azarotik pediatria zerbitzurik barik daudelako, eta Zaldibarren mediku bakarragaz egon dira hainbat astean", nabarmendu du Josu Albizuri Berrizko zinegotziak. Bestalde, bajak edo oporrak daudenean ere arretan eragiten duela salatu dute. "Zorrotzan larrieldietarako medikurik barik egon dira, eta Durangora eta Usansoloko ospitalera bideratu dituzte larrialdiak", gaineratu dute.

Albizuren berbetan, hainbat moztio aurkeztu dute hileotan udaletan, eta Osakidetzako ordezkariekin ere batu dira. "Beti erantzun bera jaso dugu: profesional gabezia dagoela eta ezin dutela ezer egin", nabarmendu du.

Udan, "okerrago"

Bildosolak salatu du herri txiki-txiki egoerak "okerrera" egiten duela udan. Mañarian eta Izurtzan, esaterako, uztailearen 26tik abuztua amaitu arte osasun zentroa egun bitan baino ez dela zabalik egongo azaldu zuen.

Gaur hasiko dituzte jaiak Berrizen, Iremiñe dantza taldearen pregoiagaz

BERRIZ • A. M.

San Pedro eta Santa Isabel jaiak hasiko dituzte gaur Berrizen; uztailearen 2ra arte iraungo dute. Iremiñe dantza taldeak, bere 55. urteurrenaren harira, irakurriko duen pregoiagaz emango diete hasiera jaiak. Gauean kontzertuak egongo dira: Ezta Ilen talde zaldibartarrak, eta Agur eta Las Sexpeares taldeek joko dute txosnagunean; Luhartz taldeak erromeria joko du, Elizondo plazan. Dantzek garrantzi berezia izango dute aurtengo jaietan, izan ere, San Pedro eguneko Dantzari Dantza oraintsu hil den German Aldekoa txistulariari eskainiko diote. Bihar, zapatua, paella lehiaketa eta txosnaguneko bazkaria izango dira ekitaldirik nabarmenatariko bi. Bestalde, txosna batzordeak gai berezia proposatu du mozorro jaitzierarako: zinema. Gauean, Kohatu berriztarrek eta Zilibito Records taldeak kontzertua emango dute. Jaiak Su lagunkoia amaituko dituzte, uztailearen 2an.

Zornotzako udal liburutegiak 'Berba lapiko' egitasmoa ipini du martxan

Udan Parisen Olinpiar Jokoak egingo dituztela baliatuta, kirola izango da 'Berba lapiko' egitasmoko lehenengo gaia; liburutegian gaiari buruzko materiala eskainiko dute

ZORNOTZA • A. M.

'Berba lapiko' Zornotzako udal liburutegiak sorturiko proiektu berri bat da. Bertan, gune berezi bat sortu dute hilero zenbait gai jorrazteko; horretarako, liburuak, komikiak, ipuinak eta bestelako materiala ipiniko dute herritarren eskura. Uztaileko gaia kirola izango da, Olinpiar Jokoak, hain zuzen ere. Ardu-

radunen esanetan, egitasmoak arrazoi bigaitik hartu du 'Berba lapiko' izena. "Lehenengo berba, hitz, gai, liburu, komiki, amets, jakintza eta ilusio askoren lapikoa izan gura duelako, eta bigarrena kontu, berba eta errelitate anitz eta askoren berri emango digulako", azaldu dute ohar baten bitartez. Udan Olinpiar Jokoak egingo dituzte

Parisen, eta hori baliatu dute lehenengo gaia aukeratzeko.

'Zuok' parte hartze prozesuan bost proiektu proposatu dituztela azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. Guztira, 27 gaztek parte hartu dute prozesuan, eta, besteak beste, Jauregibarria parkean kalistenia ekipamendua ipintzeko proposatu dute.



Jon Artabe zinegotzia eta Ainhoa Salterain alkatea.

Akordioa lortuta, kiroldegiko langileen greba bertan behera

Elizaldeko igerilekuak eta kiroldegia zabalik daude

ELORRIO • A. M.

Hogeita bat eguneko grebaren ondoren, Elorrioko kiroldegian ordezkariak duen ELA sindikatuek eta Athlon Sintagma enpresak akordioa lortu dute, eta, ondorioz, langileek bertan behera utzi zuten greba. Honenbestez, Elizaldeko igerilekuak eta kiroldegia normaltasunez dabilta martxan zapatutik hona. Akordioan lorturiko hobekuntzak 2025eko urritik aurrera sartuko dira inda-

rrean, ELAren esanetan. Besteak beste, akordioak 1.592 orduko lanaldia jasotzen du, eta baita 12 orduko baimen ordaindua ere medikuarengana joateko edo mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko; domeketan 5 euroko plusa jasoko dute 2025ean lan egindako domeka bakoitzeko, eta hamar eurokoa 2026an. ELA gogoratu du joan den astean Bermeon (Bizkaia) hitzarmen sektoriala sinatu zutela.



Kiroldegiko eta Elizaldeko langileak.



	KONPANIA	IKUSKIZUNA
IKUSKIZUN INTERAKTIBOA PUBLIKO GUZTIENTZAT	Pantzart Tadea	METAMORFOSIEN JOKOA ekainak 30, igandea 18:30ean, Tabira Parkean
BERTSO SAIOA	Gai jartzailea: Ander Elorriaga Bertsotan: Nerea Elustondo, Iruri Altzerreka, Unai Iturriaga, Bittor Salterain	BERTSO SAIOA ekainak 30, igandea 19:30ean, Tabira parkean
ANTZERKIA	Trapu Zaharra Teatro	¡DALE, RAMÓN! uztailak 6, larunbata 20:00etan, Aurora Abasolo parkean
MUSIKA	Hutsun + Jel Trio	ARTZE uztailak 11, osteguna 20:00etan, Plateruenako terrazan
DANTZA GARAIKIDEA	Cía. Matxalen Bilbao	FUGAS uztailak 13, larunbata 20:00etan, Ezkurdi plazan
	Led Silhouette	LOS PERROS uztailak 13, larunbata 20:00etan, Ezkurdi plazan
MUSIKA	Zuzendaria: Basilio Astulez	LEIOA KANTIKA KORALA uztailak 20, larunbata 20:00etan, Andra Mari elizpean
ANTZERKIA	Cía. Barsanti	LJ75. LANEAN JARRAITU 75 URTE uztailak 26, larunbata 20:00etan, Otamotzena parkean
ZIRKU GARAIKIDEA	Cía. Manolo Alcantara	MAÑA abuztuak 2, ostirala 20:00etan, Aurora Abasolo parkean
ZIRKU GARAIKIDEA	Circo Carpa Diem	DOPPIOZERO abuztuak 31, larunbata 20:00etan, Aurora Abasolo parkean


*Euria eginez gero, kontsultatu
hemen non izango den ikuskizuna.






Anbotokideen txokoa

UZTAILEKO ZOZKETAK



Hotel Balneario Areatzan bi lagunentzako gaua, gosaria eta zirkuitu termala.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.

IRABAZLEAK

Alcamporen otzara: Itsaso Villalta

Mendexa Abentura Park: Consuelo Goimil, Ibai Gonzalez de Audikana, Iker Padilla, Itziar Arana eta Unai Uribarri

Hotel Balneario Areatza: Nerea Alberdi

Xiberu taberna: Garikoitz Elustondo eta Humberto Amantegi

Aukan izozkiak: Uxue Altube

Okm:

batzen gaituen distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Abadiñoako udalbatzak trafikoa arautzeko ordenantza berri du asteon egindako osoko bilkuran. Moldaketak herriko hiru kaleri eragingo die, eta, batez ere, Zelaie-tako Zeletabe kaleari. Azkenaldian, gidariek ez dute garai bateko Taberna Txiki tabernaren aurrealdetik (13. ataria) behera gidatzeko aukerarik izan. Bidea moztuta egon da. Baina aurrerantzean, udalak egindako moldaketari eskerrak, gidariek kalean behera egin ahal izango dute. Ibaizabal gaineko zubiraino ailegatuta. Hori bai, udalak ordutegi batzuk zehaztu ditu. Beheranzko zirkulazio hori 09:00etatik 10:00etara eta 12:45etik 18:00etara egongo da baimenduta astelehenetik barikura; 12:00etatik aurrera zapatuetan, eta 9:00etatik 22:00etara domeka zein jaiegunetan. Era berean, udaletxera doan zubiko pasabidea erregulatu dute, orain arteko irizpideak mandenduta. Hau da, pasabidea oinezkoentzat baino ez da izango, baina zubiaz bestaldeko bizilagunek eta zerbitzuek ibilgailuan igaro ahal izango dute zubia.

Azkenik, Traña-Matienako Txinurrisoloko kalearen kasua dago. Udalak hainbat erabilera arau ezarri du orain dela aste gutxi oinezkoentzako gune legez moldaturiko eremu horretan. Zerga

Araudia moldatuta, Zeletabe kaletik beherako zirkulazioa berreskuratuko dute Abadiñon

Udalak moldaketak egin ditu trafikoan. Ordutegiak zehaztu ditu Zeletabe kaletik beherako zirkulazioa arautzeko



Zeletabe kalea, Abadiñon.

egoitza Txinurrisoloko 1 eta 9 atarien artean dutenek zamalanak egiteko baino ezingo dute baliatu kalea. Gainera, zamalan txiki horiek ezingo dira ordutegi hauetan egin: astelehenetik barikura 12:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 21:30era, zapatuetan 12:00etatik

23:00etara, eta domeka eta jaiegunetan 12:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Kale zati horretan jardura ekonomikoa duten komertzioekin loturiko zamalanak egiteko aukera egongo da, astelehenetik zapatuta 09:00etatik 11:00etara.

Astolako igerilekuko tabernak gaur zabalduko ditu ateak

Edariez gainera, aurtentzako jatekoa ere zerbitzatuko dute

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Astolako kiroldegiko tabernak uda sasoiko zerbitzua eskaintzeari ekingo dio gaur. Abadiño-ko Udaleko iturriek jakinarazi dutenez, taberna kudeatzeaz arduratuko den lantaldeak zerbitzu osoago bat eskainiko du aurtentzako, aurreko denboraldiarekin alderatuta. Izan ere, ohiko edariez edo izozkiez gainera, aurtentzako ogitartekoak, pintxoak eta

plater konbinatuak ere eskainiko dituzte. Gainera, lantaldeko kideek gazteei begirako ekintzak antolatzea ere aurreikusiko dute.

Abadiñoako Udalak hainbat hobekuntza lan egin du bertako instalazioetan. Sukaldea puntuan ipintzeaz gainera, hobekuntzak egin dituzte argiterian. Udalak 49.000 euroko inbertsioa egin du guztira.



Astolako kiroldegiko taberna.

Paella txapelketa, erromeria eta saiheski jana Eitzagako jaietan

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Asteburu honetan jaiak ospatuko dituzte Zaldibarko Eitzaga auzoan. Ekitaldiak gaur bertan hasiko dituzte, nagusientzako bazkariagaz (14:00). Arratsaldean umeentzako pintura eta marrazki lehiaketa (18:00) eta txokolatada herrikoia izango dituzte (19:00). 19:30ean txopoa jasoko dute. Zapatuan giro herrikoia nagusituko da auzoan. Ekitaldirik herrikoienak paella eta patata tortilla txapelketak (12:30), saiheski jana (20:00), herri afaria (21:00) eta Aiama taldearen kontzertua izango dira (23:00). Domekan azken txanpan sartuko dira. 13:45ean jaitsiera egingo dute San Pedrotik. Ondoren, euskal dantzak eta trikitilariak izango dituzte. 14:00etan txirikila joko tradizionala egingo dute, eta 18:00etan herri kirolak. Egitarauko xehetasun guztiak anboto.org atarian daude.

Dozenaka lagunek Iurretan gertaturiko sexu erasoak salatzen dituzte

Sexu erasoak egitea egotzita, Ertzaintzak gizon bat atxilotu zuen joan zen zapatuan Iurretan



Eguaztenean elkarretaratzea egin zuten Askondo kalean, erasoak gaitzetsi eta biktimari babesa adierazteko.

IURRETA • JOSEBA DERTEANO

Iurretan, Askondon, elkarretaratze isila egin zuten eguaztenean, emakume batek jasandako sexu erasoak gaitzesteko. Iurretako Udalak, Anderebide emakumeen elkarteak eta Auskari Ijorretako Neska Gazteak taldeak deituta, dozenaka lagun bertaratu ziren erasoak salatzen eta biktimari babesa eskaintzeko. Joan zen zapatuan goizaldean izan zen erasoak eta Ertzaintzak gizon bat atxilotu zuen "sexu askatasunaren

kontrako delitua" egitea egotzita. Epailearen esku utzi zuten atxilotua, Ertzaintzak jakinarazi zuten.

Iurretako Udalak, Anderebide elkarteak eta Auskari taldeak gertaturiko erasoak sexista gaitzetsi dituzte, ohar baten bitartez. Era berean, adierazi dituzte ez dutela onartuko "emakumeen aurkako inolako bortizkeria fisiko, psikologiko edo bestelakorik". Gaineratu dituzte "emakumeen aurkako indarkeria,

era guztietakoa (psikologikoa, ekonomikoa, fisikoa, sexuala, bikarioa...), emakumeen duintasunaren eta segurtasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria" dela, eta, ondorioz, "giza eskubideen urraketa larri eta onartezina". Hartara, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, "arduragabe ez jokatzeko" eskatu diete herritarrei. "Zero tolerantzia sexu jazarpenaren eta gehiegikeriaren aurrean", azpimarratu dituzte.

Trumoitte kultur ekintza bi antolatu ditu Uda Giro programaren barruan

Uztailaren 6rako umeentzako zirku tailerra egongo da Garain. Eta uztailaren 19an 'Ztandap' bakarriketa



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai.

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Trumoitte Elkarteak Uda Giro programaren edizio berri bat antolatu du uztailerako. Publiko zabalarik begirako ekitaldi bi antolatu dituzte uztailera egun bitarako. Uztailaren 6an umeentzako zirku tailerra egongo dute frontoian, 18:00etan. Umeek zirku diziplina bitan trebatzeko aukera izango dute: orekan eta malabarean. Bestalde, uztailaren 19rako adin tarte guztiei zuzenduriko bakarriketa antolatu

dute. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileek *Ztandap* bakarriketa saioa egingo dute Elizaberrin. Ekitaldi hau 19:00etan egingo dute.

Martiarenak eta Torregaraiak orgasmo arrakalaz, maitasun erromantikoa, elkarbizitzaz eta "señora izateaz" berba egingo dute, besteak beste, bakarriketan. Obra iazko azaroan estreinatu zuten, eta orduetik hona umoregile biak Euskal Herri osoan zehar dabilta biran, ikusleak barre-alaraka ipintzen.

Jaurlaritzako Osasun Saila uztailan hasiko da plataforma logistikoa berria eraikitzen Iurretan

Azpiegitura EITBren egoitza izan zen eraikinean egingo dute. 30 milioi euroko inbertsioa aurreikusitako dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak plataforma logistikoa berri bat eraikiko du Iurretan, EITBren egoitza izan zen eraikinean. Urte biko epea aurreikusitako dute azpiegitura berria eraikitzeko, 30 milioi euroko inbertsioarekin. Egitasmoa azaltzeko, Jaurlaritzako eta Osakidetza arduradunak Iurretako udal ordezkariekin batu ziren joan zen astean. Bartzar horren ostean proiektuaren berri eman zuten.

Esleipena uztailan

Kontratuak zentroaren diseinua, eraikuntza eta kudeaketa batzen ditu, eta Osasun Sailak uztailan esleituko ditu lanak. Oskar Koka Iurretako alkatea pozik agertu da

proiektua herrian garatuko delako. "Horrek Durangaldean lanpostu berriak sortuko dituelako", esan du. Osakidetza urtarrian egin zuten plataforma berria eraiki eta martxan ipintzeko lizitazioa. Horrek hornidura sanitarioen eta ez-sanitarioen erosketak, eta ospitaleetako eta osasun zentroetako biltegietara egiten den banaketa optimizatzea aukera emango du, azaldu dutenez. Osakidetza erosteko bolumena 500 milioi euro ingurukoa da urtean, zehaztu dutenez. Apirilaren 3an sinaturiko hitzarmenaren barruan, Euskal Irrati Telegizak (EITB) zuten eraikin zaharra laga zion Jaurlaritzari, "hornikuntza eredu malgu eta efizientea inplementatzeko zentro logistikoa berria".



EITBko egoitza zaharrek plataforma logistikoa berria hartuko du.

Mallabiko Udalak logotipo berria aukeratu du, prozesu zabal batean

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Udala bere irudi instituzionala berritzeko eta modernizatzeko prozesu batean dago. Proiektu honetan herritarrek inplikatzeko helburuarekin, kontsulta zabal bat egin du. Informazio liburuxkak postontzietan banatu dituzte udalerrira osoan. Liburuxka horietan, logotipo berrirako lau proposamenak ezagutzeko eta euren gogokoena bozkatzeko aukera dute herritarrek. Botoa Kultur Etxean edo udaletxean eskuragarri egongo diren hautetsontzietan eman dezakete, eta gaur —barikua— da horretarako azken eguna. Logotipo berriaren diseinurako, komunitatearen kultura-nortasuna, natura eta hurbiltasuna hartu dira erreferentziatzat.

ANBOTOren Udako Argazki Lehiaketa martxan da gaurtik irailaren 15era arte

Epaimahaiak Durangaldeko eta eskualdetik kanpoko argazkirik onenak sarituko ditu



lazgo edizioan saritutako argazkietariko bat. Ireder Angulok Pakistanen harturiko argazkia.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Bueltan da ANBOTOren Udako Argazki Lehiaketa. Gaurtik irailaren 15era arte, irakurleek udako argazkiak bidali ditzakete lehiaketara. Urtero legez, eskualdeko argazkirik onenak zein Durangaldetik kanpoko irudirik onenak sarituko ditugu. Argazkiak munduko edozein tokitatik bidali daitezke anboto.org atarira, lehiaketarako propio sorturiko atalera. Era berean, argazkiak 688 635 041 whatsapp zenbakira ere bidali daitezke.

Parte hartzaile bakoitzak argazki bi ipini ahal izango ditu kategoria bakoitzeko. Hau da, lau aurkeztu daitezke gehienez.

Irakurleen saria aukeratzeko bozketa irailaren 16tik 22ra egingo da. Kategoria horretan, eskualdeko eta Durangaldetik kanpoko argazkiak lehiatuko dira. Botorik gehien eskuratzen dutenek poltsikoratuko dute saria. Epaimahaiaren sarian ere eskualdeko zein eskualdetik kanpoko irudiak sarituko dira. Sarien artean, honako hauek daude jokoan: smartbox bat, Databostek eskainitako bluetooth aurikularrak, Garaiko Landatxean egiteko egonaldia eta Errigoraren produktuekin osaturiko otzara. Lehiaketako oinarri guztiak anboto.org atarian kontsultatu daitezke.

Politikan

Paule Sanchez
Arieta-Araunabeña
EAJ



Seme-alabei amaren gutuna

Seme-alabei,
Kolore, kolore ta gustu guziak, denontzat, denontzat ez dira berdinak,... dioen abesti bat darabilt bueltaka. Baliteke, 1978an San Franziskon Harrotasunaren Eguna ospatzeko sortu zen bandera eta ondorengoak askatasunez astintzen ikusteak zerikusia izatea.

Zorionez, gero eta ohikoago da genero identitatea, sexu orientazioa, LGBT+ akronimoak bezalako kontzeptuak entzun eta bandera koloretsuak ikustea. Jakizue pertsona eta elkarte askoren urteetako lanaren ondorio dela hori. Konpromisoz eta ausardiaz lortutako lorpenekin gizarte inklusiboago eta errespetuzkoagoa eraiki den arren, bide luzea daukagula aurretik benetako berdintasuna lortu arte.

Agian oraindik ez dizuet esan baina, genero identitatearen esperientzia konplexua gerta dakizueke. Inguruneak, erreferentziak, bizipenek, kezek, ... eragina izango dute eta zalantzak izatea normala da. Generoa hain da subjektiboa, intimoa, zuek bakarrik jakin dezakezuela zuena zein den. Hau, beti ere, zuen burua generoren batean definitu nahi baduzue, noski!

Eta nortasun hori normatibotik haratago badoa, ez beldurrik izan. Etorri etxera. Informazioa zuen esku jarriz eta zuen sentimendu eta beharrak aintzat hartuz, baldintza gabeko maitasun osoz, kontzeptuak argitzen eta nortasuna eraikitzen laguntzen saiatuko naiz.

Izan nahi duzuen, izan zuek zaretena.

Amaitzeko, eta abestiekien mezua errazago heltzen zaiuzelako, hurrengo gehitzea besterik ez: *Nahi dozu enien, nahi dozu elako, aske maite, aske bizi, bizitza zoro hau.*

Ama.

Durangaldea asteen

Eguzkitarako krema egiteko tailerra, uztailearen 4an, Atxondoko Biezko baserrian

Atxondo | Atxondoko Kultura Mahaiak eguzkitarako krema babesgarria egiteko ikastaroa antolatu du. Uztailearen 4an egingo dute, Biezko baserrian. Tailerrean filtro fisikodun krema egingo dutela aurreratu dute antolatzaileek. Talde bi egongo dira. Lehenengo txandak 11:00etan ekingo dio lanari; bigarrenak, 17:00etan. Inskripzioa Atxondoko liburutegian egin daiteke.

Zornotzako boxeo gauak 12 borrokaldi izango ditu, zapatuan

Zornotza | Zornotza Royal Boxing Team eta Lions Fight Klub taldeek 12 borrokaldi izango dituen boxeo gaua antolatu dute zapatarako. Jardunaldia 19:00etan hasiko da, Ixerbekoan. Amateurreko boxeolaririk "oparoenariko batzuek" parte hartuko dute, udalak ohar batean informatu duenez. Euskadiko txapeldunen arteko borrokaldi bat ere izango da, Naia Garmendiaren eta Oihane Gravalosen artean.

Dagoeneko konpondu dituzte Elorrioko plazan hondatuta zeuden baldosak

Elorrio | Hondatuta zeuden baldosak ordezkatu dituzte Elorrioko plazan. Udalak 36.292 euro ordaindu ditu lanengaitik. 2023an sute baten ondorioz baldosak "oso kaltetuta" geratu zirela nabarmendu gura izan du udalak ohar baten bitartez. Udalak tamaina handiko hondakinei buruzko kontzientziario kanpaina bat egin zuen, eta plazan utzitako hondakin piloari su eman zioten. Baldosak aldatzeaz gainera, zoruan labain ez egiteko tratamendua aplikatu dute, eta elizako eskailerak garbitu dituzte.



Zornotzan elikagaiak batu dituzte Zaporeak proiektuarentzat, Lesbosera bidaltzeko

Zornotza | Orue parrokiako kideek 640 euro batu zituzten joan zen otsailaren 4ko Santa Ageda bezperako koplara eskean. Orain, baturiko diruagaz elikagaiak erosi eta Donostiako Zaporeak proiektuaren eskuetan ipini dituzte. Besteak beste, honako hauek: arroza, olio, pasta eta lekaleak. Elkartasun dohaintza horri eskerrak, Zaporeak proiektuko kideek otorduak eskainiko dizkiete Lesbosera uharteko (Grezia) errefuxiatuei. Orue parrokiako kideek Santa Ageda eskeko parte hartzaile bakoitzaren ekarpena eskertu dute. Dohaintzok San Migel, Berna, Euba eta San Antonio auzoetako bizilagunek egin zituzten.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea •
Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK**
ARGITARATUKO Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira.
Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Betikoak
flexografia

BULEGORAKO
ZIGILUAK
FOTOLITOAK

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

PREMIA
EKOSKAN

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



Zaldibarko jaiak 2024

Ekainak 28, 29 eta 30

XXXII. Areto futbol maratonia, kiroldegian.

Ekainak 30, domeka

08:30-14:30 XL. argazki rallya, liburutegi zaharrear.

Uztailak 4, eguena

17:00 Kuadrillen arteko txallengea, Zaldia plazan.

18:00 HERRIXEN JAIXEN jaitsiera Zaldia plazatik.

18:30 Donien Atxa.

18:45 Jose Luis Mendilibarri esker ona.

19:00 Zaldibarko dantzariak; jarraian, gaztetxeak jaien hasiera iragartzeko txapligua jaurtiko du, eta gero, buruhandiak.

20:00 Odoloste jana, Bekoetxe kalean.

22:30 Kontzertuak txosnagunean: ITHAKA ETA ZILIBITO RECORDS.

Uztailak 5, barikua

08:30 Familientzako mendi irteera, udaletxeke plazan hasita. Amaiturikoan, mokadua egongo da eskoletako pilotalekuan.

12:30 Herri kirolak Zaldia plazan, aizkolariak eta Iparraldeko jokoak.

17:00 Apar festa, liburutegi aurrean.

18:00 Kuadrillen arteko txallengea, Txosnagunean.

18:30 Pilota partiduak.

19:00 ELEKTROKELA elektrotzaranga, txosnagunetik hasita.

22:30 Kontzertuak txosnagunean: BELAKO, TATXERS ETA MALAKIAS MX3.

23:00 Dantzaldia DJ Josemarigaz, udaletxeke plazan.

Uztailak 6, zapatua

10:00-13:00 Arku-tiroa ume eta helduentzat, Olazarko galerian.

11:00 JAIZALE Durangaldeko txistularien elkartearen kalejira.

12:00 Tortilla txapelketa, eskolako aterpean.

13:00-13:30 Zaldibar Arku taldeko arkularien erakustaldia, Olazarko galerian.

14:30 Herri bazkaria, txosnagunean.

16:00 3X3 saskibalo txapelketa, kiroldegian.

17:00 Kuadrillen arteko txallengea (FINAL HANDIA), txosnagunean.

19:00 MATRAKA elektrotzaranga, txosnagunetik hasita.

19:00 Afari-merienda Olea kalean, solomoa (1 €) eta sardinak (1 €).

23:00 DJ LANDER LUQUE eta DJ CANIJO Olea kalean.

23:30 ALTXA PORRU taldeagaz erromeria, txosnagunean.

Uztailak 7, domeka

10:30 Antonio Gutierrez GUTI I. memoriala, Bizkaiko txirrindulari eskolen arteko proba: hasiberriak, kimuak eta haur kategorikoak. Hasiera, Autonomia kalean.

11:00-13:00 eta 16:00-19:00. Umeen jolas parkea, eskolako patioan (euria eginez gero, kiroldegian).

11:00 Zaldibarko Korralak mezan abestuko du San Andres elizan, eta ondoren kontzertua emango du.

12:15 Euskal dantzak, Zaldia plazan.

19:00 Bertso saioa, Zaldia plazan. Etxahun Lekue, Oihana Bartra, Jon Maia eta Aissa Intxausti. Gai jartzailea: Amaia Agirre.

20:30 "L J 75" kale antzerkia, udaletxeke plazan (euria eginez gero, Olazar pilotalekuan).

22:00 Jailetako argazkien emanaldia, kontzertuen eszenatokian.

23:00 Su artifizialak.

Uztailak 12, barikua

18:30 Argazki rallyaren emanaldia eta sari banaketa, liburutegi zaharrear.

Uztailak 13, zapatua

07:00 Zaldibarko XLV. mendi martxa, Zaldia plazan hasita.

Amaitu: udaletxeke plazan.

Eitzagako jaiak

Ekainak 28, barikua

14:00 Nagusientzako bazkaria, Eitzagako Auzo Etxean.

18:00 Umeentzako pintura eta marrazki lehiaketa.

19:00 Txokolate jana, parkean.

19:30 Donien Atxa jasoko da.

Ekainak 29, zapatua

12:30 Paella eta patata tortilla lehiaketa, parkean.

14:00 Plateren aurkezpena.

14:15 Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa. Horren ondoren, herri bazkaria.

18:00 Bolo jaurtiketa.

19:00 Bolo txapelketa; 6 sari eta garaikurrak. Auzoko lehenengoarentzat garaikurra.

20:00 Saiheski jana.

21:00 Festak girotzeko afaria.

23:00 Musika kontzertua: AIAMA

Ekainak 30, domeka

13:00 Meza San Pedro ermitan. Ardoa eta galletak banatuko dituzte.

13:45 Ermuko Txindurri dantza taldearen euskal dantzak, parkean.

14:00 Txirikil joko tradizionala.

18:00 Herri kirolak.

20:00 Errifaren zozketa.

21:00 Jai amaierako azken traka.



**OSTARGI
BERRIA**

94 682 69 50



José David Espinosa Gonzalez

LEUNKETAK eta
BERNIZADURAKOHOLTZA BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
PARKET EZARPENAK, OHOL ETA BALDOSA GAINEANTel. 94 684 25 17
Mugikorra (Jose David) 687 537 732
jose.pinky@yahoo.comArtikas Auzoa, 26 - 48288 Ispaster
San Andres Etorbidea 30, 1ºD- 48250 Zaldibar

Birgaikuntzak eta Berrikuntzak

SATE FATXADAK
Kanpoko isolamendu termikoaren sistema
ESTALKIAK
MERKATARITZAKO LOKALAK
ETXEBIZITZAK
ATARIAK
IGOGAILUAK
GREMOIEN KOORDINAZIOAZeharkalea, 10 behea
ERMUA (Bizkaia)
943 172 767 / 629 401 713 / 629 401 712

Etxean geratzeko aitzakiak uxatzeko moduko 40 ekitaldi, uztailaren 4tik 7ra ospatuko diren Zaldibarko jaietan

Jaiak uztailaren 4an hasiko dira, Donien Atxa ipintzeagaz batera. Txupina gaztetxeko kideek botako dute, eta Jose Luis Mendilibar futbol entrenatzaileak merezi duen omenaldia jasoko du. Egitarauko eskaintza musikari dagokionez, Belako eta Tatzers taldeen emanaldiak nabarmentzen dira



Jai batzordeko kideak, udal ordezkariak, gaztetxeko kideak eta kartel lehiaketako irabazleak, martitzenean egindako agerraldian.

eskutik. Mendilibarri esker ona adierazteko ekitaldia egin eta gero, txupina jaurtitzeko ordua izango da. Aurten, jai batzordeko kideek hala erabakita, gaztetxeko kideek botako dute txapligua. Gaztetxeak 20 urteko bidea bete du aurten, ohikoa den moduan gazteei begirako eremu alternatibo eta kritiko bat eskainta.

Askotariko eskaintza

Musikari dagokionez, Belako, Tatzers eta Malakias MX3 taldeen emanaldiak, Altxa Porru erromeria taldearen kontzertua, Zaldibarko Korralaren emanaldia eta elektrotzaranga biren animazioak nabarmentzen dira. Ekitaldi herrikoien artean, aipagarriak dira kuadrillen arteko txallenge erronkak, odoloste jana, herri bazkaria, tortilla txapelketa, zein afari merienda. Kirolari dagokionez, ez dira faltako herri kirolak, pilota partiduak, saskibalo txapelketa, arku-tiroa eta Antonio Gutierrez 'Guti'-ren omenezko txirrindularitza proba. Aipaturikoez gainera, galdu ezin diren hitzorduak izango dira Lj75 kale antzerkia, umeentzako apar festa, umeen jolas parkea, bertso saioa, euskal dantzen erakustaldia, su artifizialak, mendi irteera eta Jaizale txistulari taldeko kideen kalejira.

JAIK • EKAITZ HERRERA

Zaldibartarrek etxean geratzeko aitzakirarik ez izateko moduko jaiak ospatuko dituzte uztailaren 4tik 7ra bitartean. Jai batzordeko kideek, udalagaz elkarlanean, 40 ekitalditik gora hartzen dituen egitaraua prestatu dute. Anitza,

herrikoia, parte hartzailea eta askotariko adin tarteei begirako jai programa izango da.

Herriko elkarte bakoitzak egitarauari egindako ekarpenaren garrantzia nabarmendu du Eneritz Azpitarte alkateak: "Argi dugu herri txikia izanagaitik herri bizia

garela. Zorionez, Zaldibarren elkarre sare eder eta anitza daukagu, bakoitzak beretik eragin eta herriari ezinbesteko ekarpena egiten diona. Udalak den-denen lana eskertu eta aitortu gura du, jaietan zein urte osoan zehar antolatutako ekitaldiengaitik". Jaietako egun handie-

tariko bat uztailaren 4a izango da. Izan ere, behin Donien Atxa udaltxeko plazaren aurrealdean ipinita, herritar guztiak bertan direla, Jose Luis Mendilibar futbol entrenatzaileak ondo merezitako omenaldia jasoko du udal ordezkarien eta Zaldia Futbol Taldeko kideen

SIKULAN Cutting Tool Technologies
www.sikulan.com
KASU BAKOITZERAKO SOLUZIO EGOKIENA
C/ Zubiaurre 5 - E-48250 Zaldibar - Bizkaia
Tel. 94 682 74 78 - sikulan@sikulan.com
GAI

gaurko asesoria zaldibar
Zalduasolo plaza 1, behea
Zaldibar - 48250
946 225498
gaurko@gaurko.net
GENERALI

SORGIN
Euskal Herria Etorbidea, 8
48250- Zaldibar

1955an sortua
GALLASTEGI harategiak
ZALDIBAR
Zalduasolo, 8. © 946 827 038
DURANGO
Antso Estegiz. Zumardia, 1
© 946 812 247
www.gallastegiharategiak.eus

MUELLES ZALDUA S.L.
MALGUEN FABRIKAZIOA OROKORREAN
Tel.: 946 827 801 - Faxa.: 946 827 654
San Andres etorbidea, 1
48250 ZALDIBAR
info@muelleszaldua.com
www.muelleszaldua.com

Karobi TABERNA
Zalduasolo plaza, 2
48250 Zaldibar
Tel.: 654 619 644

BARATZA FRUTADENDA URDAITEGIA
Sta. Isabel, 2 behea
Tel.: 946 225 063
Zaldibar, Bizkaia

PAULAREN ZOKOA KAFE
EL RINCON DE PAULA
07:00etatik aurrera zabalik
Euskal Herria, 18
946 550 481 - Zaldibar
Paularen Zokoa

GAZTETXEA • EKAITZ HERRERA

Irune Prada, Itsaso Urizar, Maddi Sanz, Garazi Zabala eta Maier Azpitarte Zaldibarko gaztetxeako kide-tariko batzuk dira. Uztailaren 4an botako dute jaiak hasiera emateko txapligua, 19:00etan, Jose Luis Mendilibar futbol entrenatzailea omendu eta gero. Gogotsu daude jaiak hasteko.

Herriko jaien hasiera iragarriko duzue txapligua botata. Zelan jaso zenuten proposamena?

Maddi Sanz: Egia esanda, oso era positiboan jaso genuen proposamena. Urte hau garrantzitsua da gaztetxearentzat zein Zaldibarko herri osoarentzat. Hogeigarren urteurrena bete dugu eta aurtengo jaietako txupina botatzea aukera ederra da urteurrena borobiltzeko.

Oraingoz ezingo dugu spoilerrik egin, ezin pregoiaren edukia aurreratu, baina baduzue ideia nagusiak esateko modurik?

Irune Prada: Iruditzen zaigu txupina botatzea aukera egokia izango dela hogeitau urte hauetan gaur egungo gaztetxean zein aurreko gaztetxeetan lanean ibilitako kide eta eragile guztiak omentzeko. Horrez gainera, herritar guztiak ere eskertu gura ditugu. Azken finean, gaztetxea herritik eta herriarentzat sorturiko proiektua da, eta, horrenbestez, herritarrei eskerrak eman eta gazte guztiak gaztetxera etortzeko gonbitea egin gura diegu.

Zelan ospatuko dituzue jaiak? Pentsatu duzue zein ekitalditan parte hartuko duzuen?

Irune Prada: Gaztetxea txosnaguneko eragiletariko bat da, Ernaigaz

“Jaietako txapligua botatzea aukera aproposa da gaztetxearen 20. urteurrena borobiltzeko”

Zaldibarko gaztetxeako kideek jaurtiko dute jaiak hasiera emateko txupina. Bertako kideak txosnaguneari arituko dira lanean



eta Dominika Talde Feministagaz batera. Horrenbestez, jaiak txosnaguneari ospatuko ditugu. Aurtengo ez dugu gaztetxea zabalduko.

Lanean ibiliko gara, baina herrian zehar antolatzen diren ekitaldietan eta txosnaguneko ekintzetan parte hartuko dugu.

Aurtengo nobedadeen artean, kua-drillen arteko 'txallenge' erronka dago. Bertan parte hartuko duzue?

Garazi Zabala: Erronka horretako lehenengo proba joan zen asteburuan jokatu zen, tortilla txapelketagaz. Ez genuen irabazi (barrez), baina jaietan zehar bes-

te hiru erronka egongo dira, eta horietan ere izango gara. Baita kontzertuetan ere.

Urtean zehar, zergaitik da inportantea Zaldibarren gaztetxe bat egotea?

Irune Prada: Gaztetxea kulturagune eta espazio seguru bat da Zaldi-

barren. Eta Kultur Etxe berria egiteko proiektua hor dagoen arren, momentu honetan herriko kulturagune bakarrenetarikoa da. Gaztetxea inportantea da kultur eskaintza hori bermatzeko eta askotariko gazteak batzeko espazio bat eskaintzen duelako.

AO
HORTZ KLINIKA
ZALDIBAR

- Odontologia orokorra eta hortzen estetika
- Ortodontzia eta odontopediatria
- Inplantologia eta periodontzia

Foru Kalea, 4, 48250 Zaldibar
946 22 50 16 / 688 777 017
info@ao-hortzklina.com
www.ao-hortzklina.com
@aohortzklinakazaldibar

castet
BARIKUTIK
DOMEKARA
BOKATAK
HERRIKOAN!
independentziarako indarra

MDP
MECANIZADO DE PRECISIÓN

Solozabal Pab. 35
48250 Zaldibar - Bizkaia
Tel.: 946 827 332 - Faxes 946 827 221
info@mecanizadodeprecision.com
www.mecanizadodeprecision.com

ZAGAR
SISTEMA TERMICOAK
SUTEEN AURKAKO BABESA
ENERGIA BERRITAGARRIAK
SEGURTASUNA

AIRE GIROTZEA	SU ITZALGAILUAK	BIOMASA	KAMERAK
AIREZTAPENA	DETEKZIOA	AEROTERMIA	ALARMAK
ITURGINTZA	UR HARGUNEAK	GEOTERMIA	SARBIDEEN KONTROLA

Mallabiko industrialdea - Solozabal pol. 7.pabilioia - 48250 Zaldibar
Tel.: 946 826 673

IMENDIA

- Bideo alokairua
- Fotokopiak
- Prentsa salmenta
- Gozokiak

Tel./Faxes: 946 827 413
Zalduasolo E.7 · ZALDIBAR

ELECTRICIDAD
EGUZKI, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Arzubia, 10 Apdo.115
48220 MATIENA - ABADIÑO
eguzki@elect-eguzki.es
689 709 602 Jabi
946 815 201 f: 946 818 658

ZUTITU ZENTROA

N.O.F (Blay metodoa) · OSTEOPATIA ·
KIROL TRATAMENDUA ·
KIROMASAJEA · AKUPUNTURA ·
SOINU TERAPIA · NESA XSIGNAL

Ibon Padilla Ibarra
Naturopata kolegiatu zk: 4707

Santa Isabel 2, behea - Zaldibar
AURRETIKO HITZORDUA 618 614 972

Begoña Albisua Uribarri
Abokatua

Zaldua-Solo plaza, 4 behea
48250 Zaldibar

Mob.: 656 702 012
e-maila: balbisua@outlook.es

BBVA
ZALDIBAR Aukerak Sortuz

Euskalerrria z/g,
ZALDIBAR
94 682 73 02
www.bbva.es






MARGOTU

Margotu irudia gurago duzun moduan.







LABIRINTOA



Lagundu kirikinoei sagarretara heltzen.

ZENBATU

Zenbat daude irudi bakoitzetik?



Okm:

batzen gaituen distantzia

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua papergintzan

LA PERLA

- %15eko deskontua sasoian jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan



anboto
kide

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

Berria!

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, ur eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

Berria!

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua

**Sartu zure komertzioa
Anbotokideen deskontu sarean.
Atera etekina abantailei!**



**Egin zaituz ANBOTOKIDE
eta baliatu abantailez!**



Tapia eta Leturia Band

MUSIKA ELORRIO :: Uztailak 5

Tapia eta Leturiaren triki doinuak Elorrion, Musikaire hasteko

Tapia eta Leturia bueltan dira, eta soinu-jole baten eta panderojole baten konbinazioa baino askoz gehiago dira. 1984tik, lehenengoz elkartu zirenetik, trikitixaren doinua agertoki posible guzti-eraman dute: txapelketetatik jai eta erromerietara, aretoetatik eta folk eta rock jaialdietatik ere igaroz. Baina, batez ere, triki-garaikidearen munduan kokatzen dira Tapia eta Leturia. Uztailaren 5ean Elorrion entzuteko auke-

ra egongo da, Musikaire kultur egitarauaren eskutik. Herriko plazan egingo dute emanaldia, 22:30ean.

Tapia eta Leturiagaz batera, hainbat musikari eta artista igoko da taula gainera. Nerea Erbiti, Leire Berasaluze, Kristina Aranzabe (ahotsak), Ion Celestino (tronpeta), Ibon Irixoa (saxofoia), Amets Aznarez (tronboia), Txus Aranburu (teklatura), Iñigo Telletxea (kitarra) eta Iker Uriarte (jazpana).

Ekainaren 28an

ABADIÑO E28

'Lumak astinduz'. Durangaldean harro! manifestazioa, 19:00etan, Trañabarrenetik (Kuir Eztanda eta Abadiño Mugimendu Transmarikabiboioak). Musika eta afari-merienda, Pino plazan. Akelarre Transmaribolloa: Dramadarama DJa, karaokea eta photocalla, 22:00etan, Isiotu elkartearen.

DURANGO E28

LGTBIQ+ jolasak, 12:00etatik 17:00etara, Tabirako igerilekuetan.

DURANGO sanpedroak

Txistulariak, 09:00etan, Tabira auzoan. Txupinazoa, txalaparta eta merienda, 19:00etan. Tortilla jana, 20:00etan. Kanpai jotzea, 20:00etan. Lehian, 21:00etan.

ELORRIO E28

LGTBIQA+ bandera igoera plazan, 19:00etan. Batukimba Drag ikuskizuna.

Ekainaren 29an

DURANGO sanpedroak

Txistulariak, 09:00etan, Tabira auzoan. Spinning saioa, 09:00etan, Ibaizabal ikastolan. Marmitako txapelketa, 09:00etan (mahai banatzea).

Gazteentzako jolasak

(Kalakan elkarte), 11:30ean. Bat-bateko xakea, 11:30ean. Meza, 12:00etan. Durango Kantari, 12:30etan. Marmitako lapikoen aurkezpena, 14:00etan. Sari banaketa, 14:30etan. Mus, igel joko eta partxis txapelketak, 17:00etan, Ibaizabalaren. Ostikada elektrotzaranga, 17:30ean. Talotegia, 20:00etan. Ainke + Gora Etorri + DJ Kuku & DJ Kene, 21:00etan

ELORRIO bisita gidatua

'Kaletarra' bisita, 11:00etan, Turismo Bulegoan.

IURRETA irteera

Paresira bizikleta irteera, 08:00etan. Iurreta txirindulari elkarte.

IURRETA sanmartinak

Doniel Atxa jasotzea Amatzako soinuariak alaituta, 18:00etan. Dantzarien azken entsegua, 18:30ean. Tortilla txapelketa, 20:30etan. Afaria, 21:00etan. Auzoko bertsolariak, 22:30ean. Erromeria trikitilariekin.

MAÑARIA musika

'Denbora soinu adierazpen gisa' (Anton Gomez & Alexandru Balas), 12:00etan, Angurreta Harrobia kultur espazioan.

Ekainaren 29a bitartean

ELORRIO erakusketa

'Futbolaren Historia' (Dani Solis); '1982ko munduko futbol txapelketaren atzera begirakoa' (Roberto Murga) eta 'El Deporte y los Franqueos Mecánicos' (Antonio Vicente), Iturrin.

Ekainaren 30ean

DURANGO sanpedroak

Umeentzako goitibehera 11:00etan, Ibaizabalaren atzean. Talotegia, 11:00etan, Tabira auzoan.

Herri kirolak: Karmele Gisasola, Ioritz Gisasola, Ion Gisasola eta Urdax Magunazelaia, 12:30ean.

'Metamorfosien jokoa' (Pantzar konpainia), 18:30ean, Tabira parkean (euria bada, Kurutzian).

Bertsu saioa: Nerea Elustondo, Iruri Altzerreka, Unai Iturriaga eta Bittor Salterain, 19:30ean, Tabira parkean. Gai jartzailea: Ander Elorriaga. (Euria bada, elizpean). Upel hilketak, 20:00etan.

ELORRIO txapelketa

Trikitilari Gazteen Txapelketa, 19:00etan, plazan.

IURRETA irteera

Orozkora bizikleta irteera, 08:00etan. Iurreta txirindulari elkarte.

IURRETA sanmartinak

Trikitilari kalejira, 10:30ean, Amatz auzoan. Auzoko dantzariak, 12:30ean. Gero, luntxa. Bazkari herrikoa, 15:00etan. Karta lehiaketa eta jolasak.

Ekainaren 30era bitartean

ZORNOTZA erakusketa

'Belatxikieta zazpitzaboleta', Zelaieta zentroan.

Uztailaren 4an

ELORRIO luntxa

Berio-Otxoa Egunagaitik luntxa, eguerdian, Berio-Otxoa kalean.

IURRETA sanmartinak

Auzoko trikitilariak, 10:30ean, Amatz auzoan. Meza nagusia, 12:00etan. Ondoren, luntxa.

Uztailaren 7a bitartean

DURANGO erakusketa

Viitoriano Perezen lanak, Ezkurdi erakustaretoan.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Horizon: An American Saga 1**
barikua 28: 18:30 / 20:00
zapateria 29: 17:00 / 20:30
domeka 30: 16:45 / 19:00
astelehena 1: 18:30
martitzena 2: 18:30
eguztiena 3: 19:00

• **Un lugar tranquilo. Día 1**
barikua 28: 18:30 / 21:00
zapateria 29: 17:00 / 19:30 / 21:30
domeka 30: 18:15 / 20:15
astelehena 1: 18:00 / 20:15
martitzena 2: 18:00 / 20:15
eguztiena 3: 18:00 / 20:15

• **Del Revés 2**
zapateria 29: 17:15 / 19:30 / 21:30
domeka 30: 16:45 / 20:15
astelehena 1: 18:00 / 20:15
martitzena 2: 18:00 / 20:15

• **Gru 4. Mi villano favorito**
eguztiena 3: 18:00 / 20:15

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Ex Husbands**
barikua 28: 20:00
zapateria 29: 20:00
domeka 30: 20:00
astelehena 1: 20:15

• **Robotia**
zapateria 29: 17:00
domeka 30: 17:00

Apatako jaiak 2024

Ekainak 28, barikua

18:00 Diskofesta umeentzat, DJ Goikoren eskutik.

21:00 Herri afaria. Mahaia, aulkiak, ogia eta kafea jai batzordeak ipiniko ditu.

Tortilla eta bakailao txapelketak.

Ondoren, ITZAL erromeria taldea.

Ekainak 29, zapatua

12:00 Umeentzako tailerra eta jolas erraldoiak, Txatxilipurdiren eskutik.

13:00 Igel txapelketa. Plazan.

14:30 Kuadrillen arteko paella.

16:00 Mus txapelketa, tabernetan eta txosnan.

18:00 Kalejira Mauxitxa Txarangagaz. Plazan.

23:00 Kontzertuak:

- Azken Sustraiak

- Garratz

Ekainak 30, domeka

11:00-14:30 Nekazari eta artisau azoka.

12:00 Andasto Dantza Taldearen dantzaldia. Plazan.

17:00 Pala eta pilota partiduak.

Jaien agurra, txopoa bota, eta, ondoren, txokolate beroa.

Berrizko jaiak 2024

Ekainak 28, barikua

19:00 Pregoia eta txupinazoa, Iremiñe Dantza Taldeagaz, udaletxean.

Ondoren, jaietako KARTEL LEHIAKETAREN sari banaketa, udaletxean.

Urtero legez, SARDINA JANA.

20:00 DONIEN ATXA eta DANTZARI DANTZA entsegua. Elizondo plazan.

21:30 LUHARTZ erromeria. Elizondo Plazan.

23:00 Kontzertua: EZTA ILEN, AGUR, LAS SEXPEARES, txosnagunean.

Ekainak 29, zapatua

10:00 Kuadrillen bazkarirako lekuen zozketa. Elizondo plazan.

12:00 Meza nagusia. Ondoren, DANTZARI DANTZA, German Aldekoa herriko txistularia zenaren omenez.

14:00 PAELLA LEHIAKETA, udaletxeko lorategian.

15:00 HERRI BAZKARIA. Ondoren, bingo musikala, txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

18:00 MOZORROEN JAITSIERA. Gaia: zinea. Txosna batzordeak antolatuta.

18:30 OIHAN VEGA diskofesta. Elizondo plazan.

19:00 Herriko IGL TXAPELKETA. Izen ematea 18:30 - 19:00.

20:00 DANTZARI DANTZA.

22:00 OIHAN VEGA diskofesta Elizondo plazan.

Ondoren, DJ MARIA BLESSIVE.

23:00 Kontzertua: KOHATU, ZIBILITO RECORDS.

Ondoren, DJ MARRAZO, txosnagunean.

Ekainak 30, domeka

11:30 Margo tailerra umeentzat, udaletxeko lorategian.

12:30 HERRI KIROLAK. Elizondo plazan.

14:00 XII. JOSE RAMON KORPION MEMORIALA BAKAILAOA PIL-PILEAN LEHIAKETA, udaletxeko lorategian.

16:00 TIRAGOMA TXAPELKETA, udaletxeko lorategian. Maila ezberdinak.

17:00 Musika tailerra umeentzat 'TRAKAMATRAKA'. Elizondo plazan.

18:30 BERTSO SAIOA, txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

Ane Labaka, Aritz Katarain, Igor Elortza, Irune Basagoiti.

Gai jartzailea: Miren Amuriza.

22:00 'AIURRI' Aukeran Dantza Taldeagaz, eskolako patioan.

22:30 KARAOKEA, txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

Uztailak 1, astelehena

12:00 TRIBIALA (12 urtetik gorakoentzat), udaletxeko lorategian.

12:30-14:00 / 16:00-19:00

UMEENTZAKO PARKEA: Jumping, puzgarriak eta abar, Berrizburu kiroldegian.

16:00 Mutilen XIV. eta Mistoen V. FRONTENIS TXAPELKETAKO FINALAK, Olakueta frontoian.

19:00 XAUKENA elektrotxaranga, Urtiaga plazan hasita. Ondoren, zumba. Txosna batzordeak antolatuta.

19:30 TROIA kale antzerkia Kamikaz kolektiboagaz. Eskolako goiko patioan.

22:00 LES TESTARUDES kontzertua, eskolako patioan.

Uztailak 2, martitzena (Santa Isabel eguna)

12:00 Meza nagusia. Ondoren, DANTZARI DANTZA.

14:00 Jubilatuentzat bazkaria. Bazkalostean musika, kiroldegian.

18:00 DESANUDA. Dantza. Maitane Sarralde, eskolako patioan.

19:00 ZTANDAP! Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena. Bakarrizketa txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

20:00 DANTZARI DANTZA. Elizondo plazan.

20:30 TORTILLA LEHIAKETA, udaletxeko lorategian.

21:30 'CARIBEFUNK' kontzertua, Elizondo plazan.

23:00 SU LAGUNKOIA. Su eta piroteknia erakustaldia, udaletxeko lorategian.



Izaro, Ander, Jone eta Matxalen Ertzila aita-alabak.

“Testuaren erritmoa ondo harrapatu gura dut abestia egiterakoan, testua ondo ulertzeko gero”

Ander Erzillaren 'Durundi' lana entzugai dago streaming plataformetan; lau abestik osatzen dute lan berria

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Ander Erzila musikari durangarrak lan berria kaleratu du oraintsu: *Durundi*. *Ekuru* (2020) eta *Sustraiak adarretan* (2022) lanetan baino doinu poperoagoak jorratu ditu oraingoan; zuzenekoetan alboan izan dituen Izaro (ahotsa), Jone (tronpeta) eta Matxalen (biolontxelo) alabekin, eta Ander Garcia (kontrabaxua), Dani Artetxe (gitarra) eta Rakel Arbeloa (bateria) musikariek grabatu du.

Zer da *Durundi*?

Durundi-k arrazoi bi ditu atzetik. Alde batetik, *Sustraiak adarretan* lanean grabatu barik geratu zen *Estoy ya tan cansada* abestia grabatzeko gogoia nuen. Bestetik, Elena Olave poeta durangarraren bost-

sei poemekin sortu nituen abestiek grabatu gura nituen. Horiek formatu desberdin batean idatzi nituen: pianoagaz, tronpetagaz eta txeloagaz. *Estoy ya tan cansada* grabatzeko aitzakiagaz, behin estudioa sartuta lau kanta grabatzea erabaki nuen. Horrez gainera, azkeneko kontzertuetan Jone ere ibili zen nigaz, eta bide batez hiru alabekin grabatzeko aprobetxatu nuen.

Estilo aldetik, abestiak orain artekoak baino desberdinagoak dira, beste sentsazio batzuk transmitzen dituzte.

Estoy ya tan cansada abestiak badu pop kutsu bat. Lehenengo, testuaren erritmoa ondo harrapatu gura dut abestia egiterakoan, garran-

tzia horri emateko, testua ondo ulertzeari. *Sustraiak adarretan* diskoan gauza desberdin gehiago zegoen, baina hemen poema batzuei musika ipintzea lehenesten nuen, kantak egitea. Testua ulergarri egitea garrantzitsua da niretzat.

Nik erabakita nuen kanta berrien egitura zelakoa izango zen. Ahotsaren linea melodikoaz gainera, txeloaren eta tronpetaren kontrapuntuagaz jolastu gura nuen eta kanta berrien zuzeneko aurkezpenarako instrumentazio horrentzat egokitu nuen. Melodia eta armonietan egitura tonaleatik ez urruntzeko ahalegina egin behar izan dut. Uste dut badutela ikutu pertsonala. Bestalde, poemari erritmoa bilatzea eta musika testuarentzat lagungarri izatea bilatzen dut. Testua entzun eta berriro entzuteko gogoia sartzen duten horietakoak gura ditut, nik horiek ditut gustuko. Ikasteko askotan entzun behar diren kanten falta igartzen dut. Esango nuke azkenaldian garrantzia edo pisua galdu dutela hitzek, ez dute sakontasunik.

Elena Olaveren eta Luigi Anselmiren poemei ipini diezu musika.

Lehenengoz argitaratu ditut Elenaren testuekin egindako kantak. Lehendik ere eginak nituen kantak bere berekin. Zergaitik Elenaren poemak? Irakurri eta txundituta geratu nintzelako. Irakurri eta heldutasun ikaraga-

riz idazten duela iruditzen zait, eta asko gustatzen zait. Poemek musikaltasuna ere badute. Nik poema irakurri eta testua gustatzeaz gainera, musikaltasuna ere bilatzen diot, eta hori duenean gehiago motibatzen nau horri musika ipintzeko. Eta kasu ho-

“Kapa asko dago, linea horiek kontrapuntu bezala egitea ez da erraza, eta dezente landu dut hori; sofistikatuago egin nezakeen, baina testuari jarraitzea zailduko luke”

netan den-dena zeukan. Gerora pentsatuta, belaunaldi bi ere batzen ditu: Luigirena eta Elenarena. Arrazoi estetiko bat dago aukeraketan.

Alabekin egiteak ilusio berezia egin dizu?

Behin kantak idatzita, horiek zuzenean aurkeztu gura nituen. Eta linea melodiko bi ere gehitu gura nizekien, tronpetan eta ahotsean, eta gero zuzenean aurkeztea proposatu nien. Bilboko Bira aretoan egin genuen hori, ni pianoan, Matxalen txeloan, Jone tronpetan eta Izaro abesten. Bilboko Abokatuaren Elkargoan beste emanaldi

bat egin genuen; zuzenekoak formatu horretan egitea pentsatuta geneukan. Grabatzerakoan, ostera, banda osoagaz egin genuen. Zuzenekoetarako aukera biak egongo lirerateke; izan ere, oinarritzko formatutik abiatuta beste instrumentuak ere gehitu daitezke eta.

Grabatzerakoan, zergaitik aukeratu dituzu Ander, Dani eta Rakel?

Sustraietatik adarretara proiektuan Dani Artetxe egon zen, baita zuzenekoetan ere. Ander Garcia ere beti egon da nire proiektuetan. Bateria, ostera, Iñaki Jaio ez zegoen eta Rakel Arbeloa irundarrak grabatu du bere partez; hemen egon zen lanean, ordezkapen bat egiten, eta bateria-jotzailea izateaz gainera musikaria ere bada, eta hori igartzen da. Musikari itzelak dira hirurak. Zeozeren falta izatekotan, denboraren falta izan dut. Dena asteburu bakarrean grabatu dugu. Lau kanten oinarri guztia Tio Pete estudioan, Unai Mimenzagaz (Urduliz, Bizkaia) zapatu batean, eta entsegurik egin barik. Ahotsak eta konponketak hurrengo egunean grabatu zituzten. Nahasketak Josue Pascualek egin ditu.

Baduzue beste emanaldirik esku artean?

Emanaldi bi egin ditugu. Hirugarrena, Arabako Errioxako Musika Mahasti Artean jaialdian egingo dugu, uztailean.

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Hiru urteko ibilbidean, Durangaldeko Mar-mar antzerki konpainiak MAX sarietan sartu ditu sortu dituen lan biak. *Tarzan* ikuskizunagaz hautagai izatera heldu ziren, eta orain *Arrainak bihotzean* lanagaz finalista izatera heldu dira, **haurrentzako edo familia osoarentzako ikuskizunik onenaren atalean; hau da, sari hori lortzeko hiru hautagaietariko bat dira. Igor Iglesias taldekideak erantzun die galderei.**

Itxaroten zenuten finalista izatea?

MAX saria antzerkigintzan dagoen saririk handiena da estatuan, eta ez genuen uste finalista izatera helduko ginenik, batez ere kontuan hartuta hiru urte eskas dituen konpainia garela. Pentsa, 200 bat lan aurkeztu dira aurten, eta horietariko hamar baino ez dira izaten hautagaiak (*Tarzan* horietariko bat izan zen). Jaialdietan-eta irabazi ditzakezu sariak, baina honen gaitetik ez dago ezer. Ikuskizun biak hautagaien artean izatea itzela izan zen, baina hau sorpresa ikaragarria izan da. Egindako lanari aitortza bat dela uste dut, izan ere, ikuskizunak oso ondo funtzionatu du Euskadin; ikusleei zein programatzaileei asko gustatu zaie. Horixe izan da gakoa, ze konpainia modura ez gara oso ezagunak. Egin dugun bira izugarriari urrezko amaiera ematea izango da; 65 emanaldi egin ditugu urte eta erdian, kontuan izanda ekainean, uztailan, abuztuan eta irailean ia ez dela programatzen antzokietan. Errespetu handia diet finalera heldu diren beste konpainia biei, La Maquiné eta Engruna Teatre,

“Sagarra Durangaldera ekartzea oso gatxa izango da, baina hor egotea bakarrik itzela da”

Astelehenean, uztailak 1, antzerkigintzako MAX sariak banatuko dituzte Tenerifen; Mar-mar konpainia da hautagaietariko bat

eta saria den sagarra Durangaldera ekartzea oso gatxa izango da, baina hor egonda bakarrik langa oso goian utzi dugu.

Aitortza honek zer suposatzen dio konpainia berri bati?

Heltzea bakarrik itzela da. Gure konpainiaren izena telebistan agertzen dabil, sare sozialetan gure jarraitzaile kopurua handitu egin da... Aurrera begira ere, orain arte itxita eduki ditugun ate batzuk zabalduko dizkigu, ziur. Hala ere, gu oso exijenteak gara gure lanagaz, eta exijentzia maila hori hobetzeko ere balioko digu. Gurea konpainia berria da, baina gu ez gara berriak mundu honetan, eta, azken finean, sari honeguz lan hori aitortzen ari dira. Honek indarra ematen digu *Arrainak bihotzean* lanagaz bira egiten jarraitzeko ere. Gainera, ahalik eta jenderik gehienak ikustea gura dugu, baita estatuan ere. Kanaria Uharteetara joango gara, eta baita Andaluziara ere. Urritik aurrera beste 50 bat emanaldi ditugu lotuta hemen eta estatuan.

Lan berria prestatzen zabilzate.

Bai, *Elara, bidaia bat izarretara* deituko da. Otsailaren 9an estreinatuko dugu, Barakaldo Antzokian, eta 30 bat emanaldi ditugu lotuta. Sortze prozesuan murgilduta gaudere orain.



Mar-mar konpainia.

Gai librean

Iraultza egingo dugu, maitea

Ezagutu zintudan egunetik zaitut barranean. Zure irri, kantu, zirri eta biziak pozten nau. Lehenena izan zinen zu. Lehenengo harremana, jolasak, haserreak, kantuak eta purrustadak bizi genituen elkarrekin. Hamaika momentu, hamaika bizipen.

Zalantzaz beteriko une bat bizi izan nuen. Sasoi aldrebesa eta korapilatsua, eta alboratu egin zintudan. Bizitzaren atzealdeko plano ilun batera baztertu, baina leku gutxi batzuetan elkartzen ginen oraindik. Oro har, zu saihesten saiatzen nintzen, kasurik ez nizun egiten. Nahiz eta zuk dei egin, idatzi, ni bilatu, ezetza zen nire erantzuna. Muzin egin nien zure musu eta laztanei. Bizkarra eman nion zure berotasunari. Gaztea, nerabea nintzen, eta bizitzaren jira-biran, beste bat ezagutu nuen. Beste



Ainhoa Zabarte Narbaiza Behargina

Lehenengo harremana, jolasak, haserreak, kantuak eta purrustadak bizi genituen elkarrekin

Egun hura iritsi zen arte. Zu berriz entzun zintudan eguna. Barruko berotasuna su bihurtu zenuen eguna

batekin jolasten nintzen. Kale, ohe edo kotxe, suertatzen zen eta nahi nuen lekuetan. Denbora luze batez ibili nintzen berarekin. Horrela behar zuenaren ustean, horrela izan zen.

Egun hura iritsi zen arte. Zu berriz entzun zintudan eguna. Barruko berotasu-

na su bihurtu zenuen eguna. Aspaldiko partez, plazer handiz ase geratu nintzen eguna. Klik bat. Gogoia. Kontzientzia. Beharra. Ilusioa. Zurekiko harrotasuna, nirekiko identitatea. Damutu nintzen zu hala tratatu izanaz, zu alboratu izanaz. Baina damuak damu, zu izan zara nire hautua, zurekin bizitzea erabaki nuen.

Nahiz eta batzuek zurekiko duten jarrera ezkorrak edo interes faltak oraindik mina ematen didan, pozik nago. Pozik, harremana estutu genuelako, zu berreskuratu zaitudalako. Eta ez nik bakarrik, inguruko askok zutaz gozatzen dutelako. Zurekin gozatzen dutelako. Ez da zalantzarik, asko dago, dugu egiteko. Ohitura, jarrera eta modu asko aldatzeko. Denek ezagutzen zaituzte, ongi ezagutu ere, eta badago maite zaituen jendea. Lortuko dugu, zu maitatze hutsetik, zurekin gozatzera. Iraultza egingo dugu, ene euskara maitea.



Xabier Etxeita
Gorrotxategi

Futbol jokalaria ohia

ZORNOTZA | 1987

“Oraindino ez dut futbolari ohia naizen sentsaziorik”

Xabi Etxeitak futbol jokalaria izateari utzi dio. Bizomodu berri bat du aurretik. Gauza batzuen falta igarriko du eta beste gauza batzuk berreskuratuko ditu. Esaterako, bizikleta asko maite duen kirola da eta librea gozatu da aurrerantzean

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Futbol munduan jarraitzeko eskaintzak izan dituela dio Etxeitak, baina oraingoan, udan, atsedean hartuko du, "arnasa hartu". Uda pasatu eta gero erabakiko dut etorkizuna nondik bideratu.

Erretiroa iragarri, elkarrizketak han eta hemen, omenaldia, Amorebieta-gaz hil ala biziko partiduak... Ligako azken txanpa mugitua izan zenuen. Baretu da giroa apurren bat?

Astiro-astiro doa. Denbora gehiago joan behar da egoera guztiz

baretzeko. Oraindino ez dut denbora askorik izan deskonektatzeko. Elkarrizketekin alde batetik bestera... Gero, etorkizunari begira, futbol munduan jarraitzeko eskaintzak izan ditut, futbolari barik beste arlo batzuetan, eta hori aztertzen egon gara.

Baina ortzi mugan entrenamendurik eta partidurik ez izateak sentsazio berria izan behar du.

Bai, baina uda sasoiaren gaude eta bestela ere ez nuen partidurik izango. Irail-urritik aurrera

gehiago igarriko dut. Egia esanda, ez dut futbolari ohia naizen sentsaziorik. Izan ere, azken urteetan buelta asko eman dizkiot kontu honi: adinean aurrera zoaz, lesioetatik errekuperatzea gaxagoa da, familia duzu, kanpoan urteak emanda etxera bueltatzen zara... Bada denboratxo bat aurtengoa azken denboraldia izango zela erabaki nuela.

Futbolagaitik praktikatu ezin izan duzun afizioren bat berreskuratuko duzu?

Bai, asko. Adibidez, bizikletan ibiltzea asko gustatzen zait eta futbolagaitik gutxi ibili naiz; gainera, beti kontuz, eta ibiltzeko momentuak neurtuz. Bizikletagaz beste era batean gozatzeko

aukerak ilusio handia egiten dit. Esaterako, joan zen asteburuan Treparriscos (Quebrantahuesoseko lasterketa laburra) egin

Gazte-gaztetatik Amorebietako bazkide naiz eta ahal dudanean ahaleginduko naiz taldeari laguntzen eta partiduak ikustera joaten

nuen hiru lagunegaz. Eskiatzea da gogoko dudana beste kirol bat. Gaztetan ibilitakoa naiz, eta aurrerantzean afizio hori berreskuratzea espero dut.

Futbolari ohi asko padelean dabilta...

Bai, horixe esatera joan naiz orain. Orain urte bi hasi nintzen, baina futbolagaitik ezin izan

naiz nahi bestetan aritu eta berreskuratuko dudana beste afizio bat izango da seguruenik.

Futboleko zeren falta igarriko duzu? Seguruenik futboleko lehiakortasunarena. Helburu batzuk lortzeko dena ematearen falta igarriko dut. Beste erantzukizun edo kirol mota batzuk bilatu beharko ditut falta den hori lortzeko. Egunerokotasunaren falta ere igarriko dut, futbola asko gustatzen zaidalako: entrenamenduak, taldeki-deekin sortzen den giroa...

Etorkizunean futbol munduan jarraitzeko eskaintzak izan dituzula esan duzu. Aurreratu dezakezu ezer?

Aukerak baloratzen aritu naiz, baina orain ez dela momentua erabaki dut azkenean. Udan deskonektatzea erabaki dut, arnasa hartzea eta uda beste modu batera gozatzeko. Udatik aurrera baloratuko dut zer aukera den komenigarria niretzat.

Debutatu zenuen taldean hartu duzu erretiroa, zirkulu bat itxita. Mailari eutsi ez izanak garrantzi egin dizu apur bat ipuinetakoa zirudien amaiera?

Bai, jakina, helburua lortuta guztiz desberdina izango zen eta. Iaz, Lehenengo RFEFtik Bigarren Mailara igotzea itzela izan zen. Orduan zalantzan egon nintzen, ez ote zen momentu egokia futbola uzteko. Urtebetean jarraitu nuen mailari eusteko helburuagaz, eta ez da posible izan. Ezin izan diogu pastelari ginga hori ipini. Baina, hala ere, pozik nago egindako ibilbideagaz.

Orain harmailetatik animatuko duzu taldea?

Hori seguru! Gazte-gaztetatik bazkidea naiz eta ahal dudanean ahaleginduko naiz, barrutik edo kanpotik, taldeari laguntzen eta partiduak ikustera joaten.

Athleticen talde nagusian zazpi denboraldi eman zenituen. Zure talde ohiaren Kopako finala Sevillan jarraitu ahal izan zenuen, zelaian bertan. Zelako esperientzia izan zen?

Itzela! Familiagaz joan nintzen eta finala semeagaz ikusi nuen, harmailetatik. Semea Kopa ospatzen ikustea oso polita izan zen. Partidua hasi aurreko giroa ere ikaragarria izan zen. Sekula ere ez dut horrelakorik bizi izan. Hau da, futbolari modura bai [2015eko finala jokatu zuen], baina ez zale modura. Beste batek kontatzea eta norberak bizitzea esperientzia diferenteak dira.

Zelan gustatuko litzaizuke zaleek eta jendeak zu gogoratzea?

Jokalaria langile modura. Futbola asko gustatzen zaion batek bertatik bizitzeko ametsa egia bihurtzea lortu dudana norbait lez. Baita pertsona normal modura ere. Urte askoan lehen mailan eta goi mailan egon arren, beti ahalegindu naiz umila izaten.

Julen Guerrero: "Amorebieta lasai eta gustura lan egiteko toki aproposa dela uste dut; hasieratik sintonia handia izan dugu"

Julen Guerrerok entrenatuko du Amorebieta futbol taldea datorren denboraldian; Jabi Luaces klubeko kirol zuzendari berriaren apustua izan da



Jabi Luaces kirol zuzendaria, Jon Larrea Amorebieta klubeko presidentea eta Julen Guerrero entrenatzailea aurkezpenean, Urritze zelaian.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Eskualdeko hedabideak, Bizkaikoak, Euskal Herrikoak eta estatuko hainbat ere bai. Astelehenean komunikabide asko bertaratu zen Urritxera, Julen Guerrero Amorebieta futbol klubeko entrenatzaile berriaren aurkezpena. Akordioa denboraldi

baterako da. Era berean, astelehenekoa izan zuen hedabideen aurreko lehenengo agerraldia Jabi Luaces kirol zuzendari berriak ere.

Futbola utzi zuenetik hona, Guerrero Athleticceko jokalaria ohiak harrobiko taldeetan eta gazteekin lan egin du batez

ere: Athleticen gazteen taldea zuzendu zuen eta Malaga CFko harrobiaren koordinatzailea izan zen. Ondoren, RFEFren egituraren sartuta, 15, 16 eta 17 urtez azpiko taldeak gidatu zituen. Honako hau da talde nagusi bat hartzen duen lehenengo aldia eta erabaki zuzena hartu gura zuen. "Urtea

lasai hartu dut. Ez nuen presazko erabakirik hartu gura. Futbol asko ikusi dut: sistemak, ereduak, entrenatzaileak... Niretzat oso garrantzitsua zen pauso hau ondo aukeratzea, eta pozik nago Amorebieta aukeratu dudalako. Amorebieta lasai eta gustura lan egiteko toki aproposa dela uste

dut. Hasieratik sintonia handia izan dugu", adierazi zuen Guerrerok.

Iaz mailaz jaitsita, jokalaria berri asko helduko da taldera. "Gosea duten eta garatzeko gogoz dauden jokalariai ekartzen ahaleginduko gara. Esperientzia handia dugu jokalarien garapenean", adierazi du Guerrerok. Badaki ekonomikoki talde indartsuagoak daudela Lehenengo Federazio mailan, baina jokalariai kirol proiektuagaz erakarri gura ditu.

Jokatze moduari dagokionez, entrenatzaile "anbiziotsua eta ausarta" dela uste du, "partiduaren bila joatea" gustatzen zaion horietarikoa. Denboraldiari begira ez zuen helburu zehatzik markatu, partidurik partidu joan gura du.

Zelaiaren eraberritzea

Jon Larrea presidenteari Urritze zelaiaren eraberritzearen inguruan ere galdetu zioten. Azken urteetan udalagaz batera —udal azpiegitura da— gauzatu guran dabiltzan proiektua da. Besteak beste, tribuna berri bat egingo litzateke. "Gustatuko litzazukeen baino gehiago luzatzen dabil, baina jakin badakigu ez dela erraza eta bere denbora eskatzen duela. Gure bazkideei laster albiste on bat ematea gura genuke", adierazi zuen.

Jokaldia

Denak ez du balio

Urtarrilaren 26an *Pilotaren hotsa* izeneko artikulua idatzi nuen binakako txapelketako partidu batzuetako giroa goraituz. Aspaldiko partez, pilotaren soinua entzun eta, idatzian esan nuen moduan, giro sanoa bizi izan genuen. Bada, azken asteotan frontoietako giroari buruzko eztabaida piztu da pilotazaleen artean. Buruz buruko finaletik egun batzuetara, pilotazale talde batek finaletako burrunba murrizteko eskaria egin zuen, ikuskizunari kalte egiten diola alegatuz. Iñaki Artolak berak ere aitortu zuen ez zitzaioela finaletako giroa gustatu: "Nik Irujoren eta Aimarren aldeko oihuak, artekariaren ahotsak, zaleen animo hotsak... entzuten ziren finalak bizi izan ditut; hortaz, niri, musikak, argiek eta gainerakoek ez didate zirrararik eragin".



Iñaki Iza Zarazua
Pilotari ohia

Pilotazale talde batek finaletako burrunba murrizteko eskaria egin zuen, ikuskizunari kalte egiten ziola alegatuz

Zesta-puntaren bideari jarraika, berrikuntza ugari ezarri dira eskuzko jaialdietan. Eta gai honi buruz ere idatzi nuen iaz *Berritu ala hil* artikuluan, besteak beste, DJa, argi-festa, aurkezle-animatzailea... aipatuz. Bada, hauek denak ere badira egun jaialdi askotan bizi dugun giro iskanbilatuaren eragile, esaterako, inguruko lagunekin sozializazioa zailduz.

Dena aldatzen da, baina, kasu honetan, eraberritzearen alde denak ez du balio.

Azken neurri berritzailea Bizkaia torneon ezarri dute, tantoak zenbatzeko

sisteman, hain zuzen, zeinak set-etara jokatzeak ez baitu pilotaririk ase, eta, bide batez, nik neuk ere ez dut batere gustuko. Ikustagun zein erabaki hartzen duten enpresek probaren ondoren, baina, bide luzerik ez izatea litzateke zentzuzkoena.

Nobedade positiboen artean, udako Caixabank torneoa dago. Bikote mistoekin jokatzen da, eta pandemia sasoian behin-behineko adabakia behar zuenak arrakastaz egin du bere lekua udako karteldegian. Hala ere, onartu behar dut bikote mistoen kontuak barregura eragiten didala, enpresen arteko lehia marketin hutsa izatera pasatu baitzen aspaldi. Gainera, publizitate honen izenean, eta ikuskizunaren kaltean, gelditu izan dira inoiz txapelketetatik kanpo titularrak baino maila handiagoako pilotariak.

Emakume beteranoen partidua, Elorrio futbol taldearen 100. urteurrenean



UDA KO 10.ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak webgunera edo bidali 688635041 zenbakira irailaren 15era arte

2 KATEGORIA, 4 SARI

<p>DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA - Epaimahaiaren saria: Smartbox-a. - Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.</p>	<p>DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA - Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik. - Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.</p>
---	--

Info+ www.anboto.org webgunean

ANTOLATZAILEA  LAGUNTZAILEAK   

Botikak

BARIKUA, 28 · 09:00-09:00

DE DIEGO, INTXAURRONDO
22 - DURANGO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 29 · 09:00-09:00

ETXEARRIA, MONTEVIDEO
ETORB. 2 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR
14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

DE DIEGO, INTXAURRONDO
22 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

CAMPILLO, MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

BALENCIAGA, EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

GAZTELUMENDI, J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 30 · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR
14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 1 · 09:00-09:00

BALENCIAGA, EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR
14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 2 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI, J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR
14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 3 · 09:00-09:00

IRIGOIEN, BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR
14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

EGUENA, 4 · 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR
14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZATEGIA
Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Zorionak, mutilak! Durangoko I. San Joan Xake Txapelketan **Antxon Uriarte** txapeldun benjamin mailan eta **Alluitz Azkarraga** ere txapeldun kimu mailan. Segidu biok buruko errotari eragiten eta xakeagaz gozatzen!



Ekainaren 24an gure txikitxuek 10 urte egin zituen. Zorionak, maitia! Bizipoz horrekin jarraitzea espero dogu. Besarkada erraldoia familia osoaren partez, **Danel**. Maite zaitugu!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 15° / 18° ☁

ASTELEHENA ↓ 14° / 22° ☁

EGUAZTENA ↓ 12° / 22° ☁

DOMEKA ↓ 13° / 20° ☁

MARTITZENA ↓ 13° / 20° ☁

EGUENA ↓ 11° / 27° ☀



BERRIZKO AGENDA KULTURALA

Troia - Kamikaz kolektiboa (Eskolako patioa)
Liburuen magia (Igerilekuan)
Welcome - Ganso&Cia (Eskolako patioa)

Uztailak 1, 19:30
Uztailak 4, 17:30
Uztailak 11, 17:00

Programazioa

"Orain arte egin dugun desafiorik osatuena izango da Argiñetako"

Elorrioren eta Beasainen arteko herri kirol desafioa egingo dute, ekainaren 29an, Argiñetan; norgehiagoka 12:30ean hasiko da eta Ibai Lopez eta Paul Uriarte elorriarrak lehiatuko dira



Ibai Lopez Arginzoniz
Herri kirolaria
ELORRIO | 2001

Paul Uriarte Berrio
Herri kirolaria
ELORRIO | 2004

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Ibai Lopezek eta Paul Uriartek errugbiagaz batera uztartzen dituzte herri kirolak, eta bihar hitzordu berezia dute Argiñetan: lagun arteko herri kirol erronka. 90 kiloko bolagaz 60 altxaldi, 50 kiloko txingak eroatea (400 metro), aizkoragaz enborra moztea, eta ermitari eta iturriari zortzi buelta ematea korrika. Horretxek egin beharreko lanak. Zazpiko taldetan jardungo dute, herri kirolak ezagutaraztea helburu duen erakustaldian.

Zelan sortu zen erronka?

Paul Uriarte: Lehenengo desafioa iaz egin genuen, Elorrioko jaietan, geure artean. Ander Zengotita eta biok

Mikel Zenitagoiaren eta Aimar Ardanzaren kontra aritu ginen. Eta Gabonetan Beasaingo lagun biren kontra egin genuen, orduan ere Anderrek eta biok. Biharkoa errebantxa moduko bat da, baina oraingoan zazpiko taldetan batuko gara. Orain arte egin dugun erronkarik osatuena izango da.

Denbora asko daramazue prestatzen?

Ibai Lopez: Hilabete inguru izango da. Argiñetan batzen gara normalean. Bestela, Mikelen baserrian, materiala hantxe dugu eta. Apur bat denerik egiten dugu; harriagaz altxaldi batzuk egin eta gero, aizkora hartzen dugu, eta gero ko-

Ikuskizun handia izango da eta jendea Argiñetara etortzera animatu gura dugu
IBAI LOPEZ

rrika egiten dugu. Ahal dugunean batzen gara.

P.U.: Norbera bere kabuz entrenatzen da harriagaz, txingekin eta korrika. Aizkoran bi-hiru elkartzen garenean egiten dugu.

Egunerokoan ere aritzen zarete herri kirolean?

I.L.: Bai. Bizkaiko eta Euskadiko Herri Kirol txapelketetan parte hartzen dut, orain urte bitik hona. Ingudea altxatzen eta orga-jokoan lehiatzen naiz. Horrez gainera, urtarrilean giza proba txapelketa egin genuen Gazetan. Azaroan, sailkapen proban nagusitutako lehenengo bostak aritu ginen; 10 izan ginen.

P.U.: Ni ere oraintxe hasi naiz txapelketa ofizialetan parte hartzen; orga-jasotzen ibiltzen naiz. Harria jasotzen denbora gehiago daramat.

Zelan ikusten dituzue aurkariak? Bazuze aukerarik irabazteko?

I.L.: Taldean arituko gara, proba guztiak egiten ditugu denok. Bada, baliteke baten batek harria jasotzen aizkoran baino hobeto jardutea... horrek taldea orekatu edo desorekatu egin dezake. Ez dago jakiterik! Baina irabaztera goaz. Gainera, etxean jokatzeko dugu.

Norbera bere kabuz entrenatzen da harriagaz, txingekin eta korrika; aizkoran bi-hiru elkartean egiten dugu
PAUL URIARTE

P.U.: Bai. Batzuk ezagutzen ditugu. Baina zazpiko taldea da eta ez dugu denen gaitasuna ezagutzen.

Ikustera jende asko joatea espero duzue?

I.L.: Bai! Gazetako gizon probetara jende mordo joan zen, euria polito bota arren. Argiñetara ere jende asko joatea espero dugu. Ea eguraldiak laguntzen duen. Ikuskizun handia izango da eta jendea etortzera animatu gura dugu.

P.U.: Trikitilariak eta musika ere egongo dira. Eta gauean kontzertua.

Egongo da erronka gehiago aurrerantzean?

P.U.: Jakina.

I.L.: Argiñetako jaietan harri baldar batez txapelketa antolatzea dugu pentsatuta, Elorrioko jendeagaz. Gainera, Arrazolatik ere gonbidatu gaituzte, erakustaldi bat egiteko.

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren Jubilatua/ Irakaslea



Zaindu maite duzun hori

Ruper Ordorikaren abesti hau entzun ondoren, zenbait gauza pentsarazi zizkidan. Gauzak ditugun artean maite behar ditugula, gero askotan berandu delako eta pena izateak ez gaituelako kontsolatuko.

Maite ditzagun gure guraso, seme-alaba, neba-arreba, lagun... gure ondoan zenbat eta denbora gehiago izan orduan eta babesago, goxoago eta alaituago biziko garelako.

Maite dezagun gure burua. Zaindu dezagun gure osasuna. Indartu gure zaletasunak: irakurtzea, bidaiatzea, lagunekin egotea... Gu ondo bagaude hobeto zainduko ditugulako gure ingurukoak.

Maite dezagun gure hizkuntza, euskara, izugarriko altxorra baitugu eta gainera euskaldunak egiten gaituena. Joxean Artzek dioen bezala "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ez dutelako ikasten, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik".

Maite dezagun gure Ama Lurra. Mimatu, zaindu dezagun bestela bere heriotzak berarekin eramango gaituelako.

Maite dezagun elkar. Gerreraz, amorruez, maltzurkeriaz, inbidiaz beterik dago gure ingurua. Ahalegindu gaitzen elkarri laguntzen. Mundu honetan denontzat dago tokia. Ez al da hobe maitasuna? Elkarren artean pozik bizitzea? Indarkeriak indarkeria dakar. Gizakiok ez al dugu ba hitz egiteko gaitasuna? Ba hitz egin dezagun eta konpon ditzagun gure desadostasunak.

Munduko likidorik garestiena malko bat da. %1 ura da eta %99 sentimenduak. Pentsatu norbaiti min egin aurretik.

Ea denon artean lortzen dugun mundu zorionsu eta justuagoa.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA